



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIPUZKOAKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE GIPUZKOA

**GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA**

## **ESCUELA DE INGENIERÍA DE GIPUZKOA**

EIBAR

**GRAL:** GRAFENOAREN ERABILERA ZELULA FOTOVOLTAIKOETAN

## MEMORIA

**Gradua:** Energia Berritzgarrien Ingeniaritza

**Ikasturtea:** 2021 - 2022

**Egilea:** Matias Alkaiaga, Miren

**Zuzendaria/k:** Ugarte Soraluce, Lorena eta Gonzalez Gurrutxaga, Miren Itziar



## **LABURPENA**

Azken urteotan aurrerapen asko eman dira grafenoaren ikerkuntzan. Esatearren, aurrerapen garrantzitsua eman da grafenoaren eskala handiko erauzketan. Bere karbono sare kristalinoak erresistentzia mekaniko izugarriak, eroankortasun elektriko eta termiko itzelek, iragazgaitasunak eta beste hainbat propietate ikusgarriei aplikazio askotarako material interesgarri bihurtzen dute. Lan honetan, grafeno puruaz gain honen deribatu desberdinen aplikazioa ere aztertu da. Horrez gain, gaur egun erabiltzen diren erauzketa metodo desberdinak alderatu dira.

2015. urtean 55 herrialdetako ordezkariak batu ziren klima aldaketari aurre egin nahian Pariseko hitzarmena sortzeko. Hitzarmen honen helburua mundu osoko berotegi-efektuko gas emisioen murrizketa ziurtatzea izan zen, klima aldaketari aurre egiteko. Horrezkero, energia berriztagarrietan inbertsio handiak egin dira eta trantsizio energetikoa bultzatu da. Lan hau energiagofotovoltaikora mugatzen da, grafenoak bertan izan dezakeen ekarpene aztertuz. Grafenoa hirugarren generazioko zelula fotovoltaikoetan aplikatu da eraginkortasuna hobetu nahian. Lan honetan, hiru zelula fotovoltaiko mota desberdinen nolakotasuna eta grafenoak hauetan bete dezakeen funtzioa azaldu da.

Azkenik, energia fotovoltaikoaren zein grafenoaren gizarte, ekonomia eta ingurumen alorretako inpaktuak aztertu dira. Energia fotovoltaikoak berak berotegi-efektuko gas emisorik ez duen arren, zelula zein panel fotovoltaikoen produkzioa eta beharrezko materialen erauzketa kontuan hartu behar da inpaktu erreala azterzeko. Horrez gain, panel fotovoltaikoen balio-bizitza eta ondorengo hondakin kudeaketa aztertu da.


## **AURKIBIDEA**

1. GRAFENOA.....	1
1.1    EGITURA ETA PROPIETATEAK .....	1
1.2    ERAUZKETA METODOAK.....	3
1.2.1    Top-down metodoak .....	4
1.2.1.1    Esfoliazio mekanikoa .....	4
1.2.1.2    Likido egoerako esfoliazioa .....	7
1.2.1.3    Oxidazio-erreduzio metoda .....	10
1.2.2    Bottom-up metodoak.....	13
1.2.2.1    Lurrun-deposizio kimikoa .....	13
1.2.2.2    Hazkunde epitaxiala .....	15
2. GRAFENOAREN APLIKAZIOA ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN: EGUZKI ENERGIA FOTOVOLTAIKOA.....	17
2.1    EGUZKI ENERGIA FOTOVOLTAIKOA .....	17
2.1.1    Zelula fotovoltaikoa eta efektu fotovoltaikoa .....	17
2.1.2    Parametro fotovoltaikoak .....	19
2.2    GRAFENOAN OINARRITUTAKO ZELULA FOTOVOLTAIKOAK.....	20
2.2.1    Bulk heterojunction eguzki zelula organikoa.....	21
2.2.1.1    Grafenoa elektrodotzat .....	22
2.2.1.2    Grafenoa geruza aktiboan .....	24
2.2.1.3    Grafenoa elektroi-garraiatsuile geruzatzat (ETL).....	25
2.2.1.4    Grafenoa hutsune-garraiatsuile geruzan (HTL) .....	25
2.2.2    Perovskita eguzki zelula .....	26
2.2.2.1    Grafenoa elektrodotzat .....	27
2.2.2.2    Grafenoa perovskita geruza aktiboan .....	28
2.2.2.3    Grafenoa elektroi-garraiatsuile geruzatzat (ETL).....	29
2.2.2.4    Grafenoa hutsune-garraiatsuile geruzatzat (HTL) .....	30
2.2.3    Koloratzailen sentsibilizatutako eguzki zelula.....	31
2.2.3.1    Grafenoa elektrodotzat .....	32
2.2.3.2    Grafenoa elektrolito solidotzat .....	33
3. GOGOETA KRITIKOA.....	35
4. BIBLIOGRAFIA .....	39

# 1. GRAFENOA


## 1.1 EGITURA ETA PROPIETATEAK

Grafenoa sare hexagonal lau batean egituratutako karbono atomoz osatutako kristal atomiko bidimentsionala (2D) da (Irudia 1-1). Material hau ezagutzen den lehenengo 2D kristal atomikoa da [1]. Grafenoa inoiz lortutako egiturarik meheena, munduko materialik gogorrena [2], eroale elektriko [3] eta termiko [4] aparta eta bereziki elastikoa da, besteak beste. Ezaugarri ikusgarri hauek direla eta ikertzaile askoren lan lerro bihurtu da azken urteotan.



*Irudia 1-1. Grafenoaren egitura kristalinoa [5]-etik eratorria*

Grafenoan, karbonoak lau balentzia-elektroi ditu eta beraz, lau lotura kobalente. Horietako hiru  $\sigma$ -lotura dira eta geratzen dena  $\pi$ -lotura da (Irudia 1-2). Sigma lotura karbono atomo bakoitzaren alboan kokatzen diren hiru karbono atomoekin duen lotura da, atomoen arteko distantzia  $\sim 0,14$  nm izanik. Pi lotura, aldiz, z ardatzean (planotik kanpo) orientatua dago. 1-2 irudian ikusten den moduan,  $\pi$ -lotura nukleoan zentratutako bi orbital simetrikotzat har daiteke. Atomo bakoitzak  $\pi$ -lotura bat du zeinak ondoren, 1-2 irudian adierazten den bezala, beste atomoenekin batera hibridatuak diren  $\pi$ -banda (balentzia-banda) eta  $\pi^*$ -banda (eroale-banda) osatzen dituen. Banda hauek dira grafenoaren ezaugarri elektroniko ikusgarrien erantzule [6].




*Irudia 1-2. Karbonoaren lotura kobalenteak eta Dirac konoa [5]-etik eratorria*

Grafenoa zero-gap erdieroalea da balentzia-banda eta eroate-banda Dirac puntuaren elkartzen direlako, inongo tarterik utzi gabe [7]. Grafenoan, karga eramaileak atomo lodiera duen geruza bakar batera mugatuta daudenez, elektroi eta hutsune mugikortasun altua erakutsi du. Giro-temperaturan  $2,5 \cdot 10^5 \text{ cm}^2 \cdot \text{V}^{-1} \cdot \text{s}^{-1}$ -ko mugikortasun abiadura du, beste edozein erdieroaletan baino altuagoa [8].

Horrez gain, grafenoaren ezaugarri optikoak deigarriak dira. Geruza bakarreko grafenoa bereziki gardena da ( $T=97,7\%$ ) eremu ikusgaien, oso islapen txikia (< 0,1%) izanik. Hala ere, geruza kopurua handitu heinean gardentasuna murrizten doa [9]. Gainera, bere C=C lotura sareari esker, grafenoak malgutasun ona eta gas permeazioarekiko erresistentzia altua duela frogatu da.


Grafenoaren  $\pi$ -sareak eroankortasun termikoan eta propietate mekanikoetan eragina du. Eroankortasun termikoa ( $\kappa$ )  $5 \cdot 10^3 \text{ W} \cdot \text{m}^{-1} \cdot \text{K}^{-1}$  baliokoa da, diamantearen eta grafitoarena bainoaltuagoa. Bestalde, grafenoaren Young modulua  $E=1 \text{ TPa}$  baliora arte iristen da [10].

Grafenoaren egitura ezaugarrien arabera, grafenoan oinarritutako materialen sailkapena egin daiteke (Irudia 1-3): geruza bakarreko grafenoa, geruza anitzeko grafenoa (2-10 geruza), grafeno oxidoa (GO), erreduzitutako grafeno oxidoa (rGO), *quantum dots* grafenoa (GQDs) eta *quantum dots* grafeno oxidoa (GOQDs) [11].




**Irudia 1-3. Grafenoa eta bere deribatuen egitura [11]-tik eratorria**

Geruza bikoitzeko grafenoak, esaterako,  $\sim 0,34 \text{ nm}$ -ko lodiera du, erauzketa metodoaren arabera nanometro batuetako gorabehera izanik (Irudia 1-4). Geruzak Van der Waals indarraz eta  $\pi$ -banden interakzioaz batuta mantentzen dira.



**Irudia 1-4. Geruza bikoitzeko grafenoaren egitura [5]-etik eratorria**

Bestalde, grafenoaren bloke egituz abiatuz dimentsio desberdinako karbono alotropo batzuk lor daitezke (Irudia 1-5). Horietatik materialik handiena grafitoa da, hiru dimentsio (3D) dituena. Esan daiteke grafitoa grafeno geruzak metatzera eraiki daitekeela. Bestalde, grafeno xafla hodi forma emanez tolestuz karbono-nanohodiak lortzen dira, hauek dimentsio bakarrekoak (1D) izanik [12]. Azkenik, zero dimentsioko (0D) fulerenoa aurkitzen da, disolbatu ahal den forma alotropiko bakarra [13].



**Irudia 1-5. Karbono elementuaren allotropo batzuk**

Aipatu bezala, grafeno deribatu edo konfigurazio desberdinak daude, bakoitzak ezaugarri desberdinak eskainiz.


## 1.2 ERAUZKETA METODOAK

2004 urtean Geim eta Novoselov zientzialariek geruza bakarreko grafenoa *Scotch tape* izeneko esfoliazio mekanikoaz deskubritu zutenetik [14] beste hainbat erauzketa metodo garatu dira. Gaur egun, grafenoaren merkatua honen erauzketan ematen ari diren aurrerapenengatik suspertzen doa, jada dozena bat metodo desberdin garatu direlarik.

Erabiltzen den erauzketa metodoak grafenoaren propietateak definituko ditu eta beraz, dagokion erabilerarako aukera egokiena zein den aztertzea komeni da. Bereziki karga mugikortasun altuko eta akats-dentsitate baxuko grafenoa lortzean dago gakoa [15].

Eskala handian grafenoa erauztean kontutan izan beharreko aldagai garrantzitsuenak grafenoaren kalitatea eta metodoaren kostu zein zaitasuna dira.

Gaur egun, grafenoaren erauzketa bi metodologia talde orokoretan oinarritzen da: *Top-down* eta *Bottom-up*. Metodologia bereizketa hasierako materialen araberakoa da: *Top-down* metodoek grafitoa erabiltzen duten bitartean *Bottom-up* metodoek hidrokarburoak erabiltzen dituzte gehienbat (Irudia 1-6).




**Irudia 1-6. Grafeno erauzketarako top-down eta bottom-up metodoak [16]-tik eratorria**

### **1.2.1 Top-down metodoak**

*Top-down* metodoa, izenak esaten duen bezala, material handiago batetik, grafitotik alegia, grafenoa den material txikiagoa lortzean datza. Horretarako, grafitoaren esfoliazio mekaniko [17], likido egoerako esfoliazio (LPE) [18] edo oxidazio-erreduktzio metodoak [19] erabiltzen dira besteak beste.

#### **1.2.1.1 Esfoliazio mekanikoa**


Esfoliaziokoan, solido egoerako esfoliazio izenez ere ezaguna, grafeno geruzak grafito gainazaletik mekanikoki askatzen dira. Esfoliazioan indar normalak zein ebakidura indarrek esku hartzen dute (Irudia 1-7) bide mekaniko desberdinez van der Waals indarrak gainditzeko. Lan honetan hiru esfoliazio bide desberdin aztertuko dira: *Scotch-tape*, bola bidezko fresaketa eta hiru erroilu bidezko fresaketa metodoak.



**Irudia 1-7. Grafenoa esfoliatzeko bide mekanikoak eta xaflen zatikatzea [17]-tik eratorria**

##### **1.2.1.1.1 Scotch-tape metodoa**

Arestian aipatu bezala, 2010 urtean Geim eta Novoselov zientzialariak Nobel saria irabazteria eraman zituen metodo honek [14]. Prozedura simplea da: grafito lagin batean behin eta berriz zinta itsasgarria jarri eta kenduz grafeno xaflak lortzean datza (Irudia 1-8) [20].




**Irudia 1-8. Scotch-tape metodoa [5]-etik eratorria**

Metodo honek kalitate altuko geruza bakarreko grafenoa era merkean, azkar eta simplean lortzea ahalbidetu zuen arren, eskulan askoren beharra suposatzen du eta produkzio errendimendu oso baxua du [21]. Ondorioz, Scotch-tape metodotik beste metodo hobetu batzuk garatu dira.

#### 1.2.1.1.2 Bola bidezko fresaketa metodoa

Grafito soltetik grafeno geruzak mekanikoki lortzeko beste metodo bat bola bidezko fresaketa da. Metodo hau oso erabilia da industrian hauts desberdinak ekoizteko. Planteamendu honetan ere, grafeno xaflen esfoliaziorako eta zatiketarako bidedesberdinak daude (Irudia 1-9). Horietatik nagusiena ebakidura indarrak erabiliaz emandako esfoliazioa da. Bide hau oso arrakastatsua da tamaina handiko grafeno-hautsak lortzeko.




**Irudia 1-9. Bola bidezko fresaketa metodoaren mekanismoa [17]-tik eratorria**

Bigarren bidea bolarekin inpaktu bertikalak aplikatzean datza. Modu honetan, grafeno-hauts txikiagoak lortzen dira. Hala ere, xaflen gainazalean bolak talka egitean grafenoaren egitura kristalinoa suntsitu daiteke [17]. Eszenatoki honetan, xaflaren esfoliazioaren ordez zatiketa ematen da. Hori dela eta, aplikatutako bi indarren arteko oreka egon behar da. Horrela, indar normalak murrizten dira ebakidura-indarrak Van der Waals indarrak gainditzen bezain handiak izanik.

Azkenaldian, likido egoerako esfoliazioan oinarrituta bola bidezko fresaketa hezea aztertu da. Zhao eta kolaboratzaileek [22] disolbatzaile desberdinak aplikatu zizkioten grafitoari ondoren errota planetario bat erabiliz grafenoa lortzeko asmoz. Metodo hau denbora luzeko (30 h) fresaketan oinarritzen da, zeinetan biraketa-erretilua abiadura baxuan (300 rpm) mantendu behar den ebakidura esfortzua nagusia dela ziurtatzeko. Prozesu hau DMF (dimetilformida), NMP (N-metil-2-pirrolidona), eta TMU (tetrametilurea) bezalako disolbatzaileekin frogatu da. 2010 urtean 30-80 nm bitarteko grafito xafletatik abiaturaz geruza bakarretik hiru geruzarainoko grafenoa (0,8-1,8 nm) lortu zuten DMF disolbatzaileaz.

Hala ere, grafitoa lehorrean fresatzen jarraitu da. Grafitoa uretan disolbagarriak diren gatz ez-organikoekin nahastuz grafito geruzen aldaketa lortzen daiteke. Ondoren, fresaketa

produktuak urez garbituz edo/eta sonikazioaz grafeno-hautsak sor daitezke (Irudia 1-10) [23].




**Irudia 1-10. Gatz disolbagarriz lagundutako bola bidezko fresaketaren eskema [23]-tik eratorria**

Orokorrean, bola bidezko fresaketa eskala handiko grafenoa ekoizteko gai da. Beste metodo batzuen antzera, etekina eta kalitatea prozesuko parametroekiko proporcionalak dira, hala nola, disolbatzaile mota, hasierako grafitoaren kontzentrazioa, tratamendu-denbora, biraketa abiadura eta grafito-bola erlazioa.

#### 1.2.1.1.3 Hiru erroilu bidezko fresaketa metodoa

*Scotch-tape* metodoan inspiratutako beste metodo bat da erroilu bidezko fresaketa. Saia-kuntza batean Chen eta kolaboratzaileek [24] geruza bakarreko eta geruza anitzeko grafenoa lortu zuten metodo honen bitartez. Lehenik PVC (polibinil kloruro) eta DOP (di-n-oktilftalato) materialak 30 minutuz irabiagailu magnetiko baten bidez nahastu ziren 250 °C-tan (Irudia 1-11). Bitartean, 500 nm inguruko grafito naturala lehortu zuten 24 orduz 100 °C-tan. Ondoren, itsasgarria feed erroiluaren eta erdiko erroiluaren artean jarrizuten. Behin erroiliak mugitzen hasi zirenean, prestatutako grafito naturala gradualki zabaldu zen itsasgarriarekin kontaktu handiena lortzeko, ondoren uniformeki itsasgarrian esfoliatu zedin. Esfoliazioa giro-tenperaturan egin zen 12 orduz. Horren ostean, erroiluko materiala bildu eta alkoholetan busti zen DOP kentzeko. Azkenik, PVC erretxina muflan 500 °C-tan erre zuten 3 orduz grafenoa hutsa lortzeko.



**Irudia 1-11. Hiru erroilu bidezko fresaketa metodoa [24]-tik eratorria**

Prozesu honetan lortu zuten grafenoaren eroankortasuna  $7,5 \cdot 10^3 \text{ S} \cdot \text{m}^{-1}$  izan zen, grafeno oxidoaren esfoliazio kimikoarekin lortzen dena baino hobea. Bestalde, 1,13-1,41 nm arteko lodierako geruza bakarreko eta geruza anitzeko grafenoa lortu zen.


Hiru erroilu bidezko fresaketa metodoak geruza bakarreko eta geruza anitzeko grafenoa maila industrialean fabrikatzea baimentzen du. Nahiz eta hiru erroiluzko makina oso teknika ohikoa izan maila industrialean, batez ere kautxuaren industrian, grafenoa lortzeko beharrezkoa den PVC eta DOP soberakinen bete-beteko eliminazioa ez da erraza. Beraz, grafeno erauzketarako hautagai paregabea den metodo honetan doikuntza batzuk egiteke daude.

### 1.2.1.2 Likido egoerako esfoliazioa

Likido egoerako esfoliazioan (LPE) bitarteko likido bat erabiltzen da grafito sintetiko zein naturalaren esfoliazioaz geruza bakarreko zein geruza anitzeko grafenoa lortzeko. 2008an Coleman eta kolaboratzaileek [25] idatzi zuten grafitoaren LPE sonikazio prozesuaren lehen txostenetik beste hainbat LPE hurbilketa aztertu dira: mikrofluidizazioa [26], errektore kabitazioa [27], ebakidura handiko nahasketa [28] eta presio handiko homogeneizazioa [29]. Hurbilketa bakoitzak bere abantaila eta desabantailak ditu.

Metodo hauen abantailako batzuk hauek dira: ez dago oxidazio kimikoko urratsik, erraz funtzionatzen dute, ez dute ez tresna sofistikaturik ez eta temperatura alturik behar. Beraz, LPE grafenoaren masa-ekoizpen merkerako aukera bideragarritzat jotzen da. LPE metodoek erdibideko kalitatezko grafenoa ekoizten duten arren, aplikazio zehatzetan akatsek eragindako onuren ondorioz, material baliotsua da oraindik.

LPE metodoez ekoitzitako grafenoaren propietateei eragiten dien beste alderdi bat erabilitako disolbatzailea eta aplikatutako teknika da. Orain arte disolbatzaile organikoak, ura, surfaktante/ur disoluzioak, likido ionikoak eta disolbatzaile aromatikoak aztertu dira grafito xaflak esfoliatzeko (Irudia 1-12) [30]. Irudian adierazita dagoen moduan, surfaktantez lagundutako LPE prozesuek grafeno gainazalean surfaktante soberakinak uzten dituzte. Bestalde, LPE simpleak grafeno nahiko purua ekoizten du.




**Irudia 1-12. Grafitoaren LPE prozesuaren diagrama surfaktantearekin eta gabe [30]-etik eratorria**

Lan honetan, ezagunenak diren sonikazio eta ebakidura handiko nahasketa LPE prozesuak aztertuko dira.

#### 1.2.1.2.1 Sonikazioa


Gehien erabiltzen den LPE hurbilketa sonikazio da, zeinetan likido kabitazioa den esfoliazioaren arduradun [31]. Sonikazioa bi kategoriatan bana daiteke; bainu sonikazioa eta punta sonikazioa. Bi prozedurak banaka zein aldi berean aplikatuak izan dira grafeno xaflak prestatzeko [32]. Sonikazioan zehar aldaketa fisikoak edo kimikoak ematen dira disoluzioan kabitazio-burbuilen eraketaren bidez, zeinak talka-uhin eta mikrotxorro indartsuak sortzen dituen [33]. Kabitazioak muturreko presioak lortzen ditu, temperatura lokal altuak eta hozte/berotze abiadura azkarrak [34].

Sonikazio prozesu nagusian, etengabeko mikrotxorro eta talka-uhinek grafito guztian zehar transmititzen diren konpresio-uhinak sortzen dituzte (Irudia 1-13). Behin konpresio-uhinak grafitotik igarotzean, tentsio-uhinak grafitoko gorputzean zehar bueltan islatu daitezke. Hau honela, hainbat mikro-burbuila lehertzeak trakzio-esfortzu ikaragarria eragiten du, grafitoaren esfoliaziora eramanik.



**Irudia 1-13. Sonikazioan parte hartzen duten tentsioak [17]-tik eratorria**

Prozesu sekundarioan, alboko tentsio desorekatuak elkartuta dauden bi grafito geruza esfolia ditzake ebakidura-efektuaren bidez. Gainera, mikrotxorroek grafitoa laminatan zati dezakete ziri-efektu baten bidez [17]. Azkenik, zentrifugazioa beharrezkoa da esfoliatu gabe geratu diren grafito partikulak ezabatzeko (Irudia 1-14).



**Irudia 1-14. Sonikazio prozesuko pausoak [35]-etik eratorria**

Erabilitako bitarteko likidoak grafenoaren dispersio egonkorra baimendu behar du LPE prozesuan zehar. Disolbatzaile desberdinak aztertu dira prozesu honetan erabiltzeko, besteak beste NMP [36], ortodiklorobentzenoa (ODCB) [37] eta H<sub>2</sub>O/PVC [38]. Grafenoaren eta likidoaren arteko gainazal kontaktua minimizatu dezakeen disolbatzailea egokiena da grafenoaren disperssiorako.

Ikertzaileek sonikazio prozesuko parametro batzuen eragina aztertu dute, sonikazio potentzia, disolbatzailea eta prozesu denbora barne. Jakin da askoz ere grafeno kontzentrazio handiagoa lortzen dela ODCB-arekin NMP-arekin baino eta dispersioa hobetzen dela sonikazio denbora eta/edo potentzia handituz [39].

Saiakera desberdinien ondoren, ikusi da punta sonikazioan grafito litro gutxi batzuk bakarrik erabil daitezkeela, produkzio maila txikira mugatuz. Aldiz, bainu sonikazioan hamar litro soluzio edo gehiago erabil daiteke. Hala ere, kalitate baxuko, esfoliazio denbora luzeko eta eraginkortasun baxuko prozesua da. Ondorioz, sonikazio bidezko LPE metodoa hobetu beharko litzateke.


#### 1.2.1.2.2 Ebakidura handiko nahasketa

Sonikazio bidezko esfoliazioaren antzera, ebakidura handiko nahasketa disoluzio likido batean ematen da. Nahasketa makina batez ebakidura indar handiak aplikatzen dira eskala handiko grafitoaren esfoliazioa lortzeko [40]. Makinaren funtzia nahastezina den materia egoera bat (solido/likido/gas) egoera jarraituan (adibidez likidoa) barreiatzea da ebakidura-indarraz baliatuz. Orokorrean disoluzio/fluido eremu bat ondoko eremuarekiko abiadura ezberdinean mugitzen denean ematen da mozketa.

Grafitoaren esfoliazioa errotore-estatore nahasgailuaz [41], Taylor-Couette fluxu-erreaktoreaz [42], irabiagailuaz [43] edo mikrofluidizatzialeaz [44] egin daiteke. Lan honetan erabilienak diren errotore-estatore nahasgailu eta irabiagailua bidezko esfoliazioak aztertuko dira.

- Errotore-estatore nahasgailua

Grafitoaren LPE-a erraz lor daiteke errotore-estatore nahasgailua erabiliz. Liu eta kolaboratzaileek [41] eskala handiko ebakidura-esfoliazioa aztertu zuten grafeno ekoizpenerako. Errotore-estatore nahasgailu batean nahasketa gunea estatore batez, errotore batez eta errotore-estatore zuloez osatzen da (Irudia 1-15). Errotorearen diametroa erregulagarria da.



**Irudia 1-15. Errotore-estatore nahasgailuaren atalak [41]-etik eratorria**

Paton eta kolaboratzaileek [40] Silverson L5M nahasgailu modeloa erabili zuten, zeinak ebakidura-tasa handiak lortu zituen errotore-estatore hutsune estuekin ( $\sim 100$ ,  $115$  eta  $135 \mu\text{m}$ ). Grafeno dispersiorako surfaktante akuoso disoluzio bat (NaC) eta disolbatzaile organikoa bat (NMP) erabili zituzten. Ikusi zuten grafenoaren ekoizpen-tasa ( $\text{PR} = V \cdot C \cdot t^{-1}$ , non  $V$  bolumena den,  $C$  kontzentrazioa eta  $t$  denbora) disoluzioaren bolumenaren menpekoa zela. Kalkuluen arabera NMP-arentzako ekoizpen tasak  $\text{PR}_A = 1,1\text{V}$  erlazioa du eta NaC disoluzioak  $\text{PR}_A = 1,6\text{V}$  erlazioa. Ondorioz, grafenoaren ekoizpen eskalagarria lor daiteke surfaktantearen eta likidoaren bolumena handitzean.

Aipatzeko da ebakidura handiko errotore-estatore nahasgailuan ebakidura-tasa handienak estatorearen zulo inguruan kokatzen direla. Hau da, ondo antolatutako ebakidura-tasa handiko eremuak estatore/errotore gunean kokatzen dira. Ondorioz, eraginkortasun txikiagoko grafito esfoliazioa ematen da.

- Irabiagailua


Ebakidura-tasa lokalizatuen arazoa konpontzeko irabiagailu bat erabiltzea proposatu zen [45]. Irabiagailuarekin ebakidura-tasa altuak ematen dira nahasgailuaren eremu osoan.

Sukaldeko irabiagailu batean (Irudia 1-16) palak abiadura azkarrean biratzen badute ebakidura-tasa altuak edukiontzi osoan zehar lortzen dira.



**Irudia 1-16. grafeno erauzketa sukaldeko irabiagailuaz [45]-etik eratorria**

Irabiagailu bidezko grafitoaren esfoliazio eraginkorren erantzule diren ekintza fluidodinamiko nagusiak honako hauek dira (Irudia 1-17): (I) abiadura gradientearen garapena, ebakidura-tentsioaren erantzule; (II) turbulentziako abiadura fluktua handia, Reynoldsen ebakidura-tentsioaren erantzule; (III) turbulentzia handiek eragindako inertzia indar handiak, grafito-grafito talka areagotuen erantzule; eta (IV) turbulentzia presio diferentziak eragindako presio gradientea, indar normalen erantzule. Ondorioz, dagokion akzio fluidodinamikoak neurri handi batean ebakidura indarrak eragiten ditu, zeinak esfoliazio mekanismoa erregulatzen duen.



**Irudia 1-17. Irabiagailu bidezko grafitoaren esfoliazio prozesuko gertaera fluidodinamikoak [45]-etik eratorria**

Orokorrean, irabiagailu teknikarako, dispersioko grafeno kontzentrazioak erlazio linearra du denborarekin, hau da, kontzentrazioa handitu egiten da denborarekin. Horrez gain, volumena handitzearekin grafenoaren kontzentrazioa txikitzen da eta beraz, ekoizpen-tasa altua lor daiteke bolumen baxuarekin.


Oro har, ebakidura handiko nahasketa potentzial handiko teknika da goi-mailako grafenoa ekoizteko, etekin handikoa, gainazal akats baxuekin eta oxidaziorik gabekoa.

### **1.2.1.3 Oxidazio-erredukzio metodoa**

Grafitoaren esfoliazio-oxidatiboa metodorik itxaropentsuena da grafito oxidoa eta bere GO deribatua prestatzeko. Planteamendu honetan oxidazioaz oxigeno taldeak grafitoan sartzen dira, non karbono-egituraren zehar hedatzen diren xaflen arteko Van der Waals indarrak gainditzeko. Oxigeno taldeek grafito xaflen arteko tartea areagotzen du. Grafito oxidoaren konposizio kimikoa eta egitura agente oxidatzialearen, grafito aitzindariaren, erreakzio-baldintzen eta erabilitako erauzketa prozeduraren araberakoa da [46]. Jarraian,

grafito oxidazioa disolbatzaile egokietan (etanola edo ura) sonikatzen bada geruza bakarreko, bikoitzeko eta anitzeko grafeno oxidoan bihur daiteke [47].

Horrez gain, GO eraldatu daiteke rGO lortzeko hainbat erreduktzio metodo erabiliz, hala nola, erreduktzio termikoa, kimikoa, elektrokimikoak, hidrotermikoa, mikrouhin bidezkoa eta fotoerreduktzioa (Irudia 1-18) [48].



**Irudia 1-18. Grafitoaren oxidazio-erreduktzio metodoaren eskema [48]-etik eratorria**

#### 1.2.1.3.1 Esfoliazio-oxidatibo metodoak

Orain arte hainbat metodo garatu dira grafitoa GO bihurtzeko. Bost prozedura daude grafitoa GO-ra oxidatzeko: Brodie, Staudenmaier, Hofmann, Hummers eta Tour. Metodo hauek modifikatuak izan dira ingurumen inpaktua murriztu nahian. Prozesu hau azido sendo baten ( $H_2SO_4$ ,  $H_3PO_4$  eta ketsu/ $HNO_3$  kontzentratua) eta grafitoaren arteko erreakzio kimiko batean oinarritzen da, oxidatzaile baten txertaketaz ( $KClO_3$ ,  $KMnO_4$  eta  $NaNO_3$ ) jarraiki. Lan honetan, Hummers eta Tour metodoak aztertuko dira.

- **Hummers metodoa**

1958an, Hummers eta Offeman ikertzaileek [49] grafitoaren esfoliazio-oxidatibo kimikorako metodo alternatibo garrantzitsuena aurkitu zuten. Metodo hau seguruena eta azkarrena zen grafito oxidoa (GO-HU) lortzeko, zeinetan C/O erlazioa (2,25) zen. Planteamendu honetan, gehiegizko  $KMnO_4$  eta  $H_2SO_4$  kantitateak eta  $NaNO_3$  kantitate txiki bat erabili ziren.

Lehenik, grafito-hautsa eta  $NaNO_3$   $H_2SO_4$ -an irabiatu eta izotz bainu batean 0 °C-tara hoztu zen. Jarraian  $KMnO_4$  gehitzen joan zitzaison pixkanaka eta 35 °C-tan irabiatu zen. Ondoren, pixkanaka ura gehitu zitzaison eta kanpoko berogailu bat jarri zen 98 °C mantentzeko denbora tarte labur batez. Erreakzioa amaitu ondoren, suspentsioa  $H_2O_2$  eta uraz tratatu zen permanganato ( $MnO_4^-$ ) eta manganeso dioxido ( $MnO_2$ ) soberakinak kentzeko, kolorerik gabeko manganeso sulfato ( $MnSO_4$ ) eta oxigeno disolbagarri ez-toxikoetan bihurtuz [50]. Horrez gain, diluitutako nahasketa iragazketaz (centrifugazio bidez hainbat aldiz garbitzea) araztu zen eta dekantazioaz disolbatutako azido grafitikoa ( $C_{12}H_6O_{12}$ ) kendu zen.

Metodo honetan, nitrogenoan oinarritutako gas toxikoak ( $NO_2$  eta  $N_2O_4$ ) saihestezinak dira. Esfoliazioaren ondoren Hummers metodoaz lortutako GO-ak sufre (~% 6) [51] eta nitrogeno ezpurutasunak ditu. Ezpurutasun hau,  $H_2SO_4$  eta  $HNO_3$  adsortzioaren ondorioz edo kobalenteki lotutako nitratoen eta sulfatoen ondorioz ematen da [52].

Gas toxikoen isurketa eta erreakzio tenperatura altuek Hummers metodoaren eskala handiko aplikaziorako potentziala mugatzen dute [53]. Ondorioz, hobekuntza edo/eta modifikatzeko ahaleginak egin dira Hummers metodoaren segurtasun, erreakzio-denbora, erreakzio-tenperatura, oxidazio-maila eta kostu arazoak konpontzeko.

- Tour metodoa

2010ean Tour eta ikertzaileek Hummers metodoa hobetu zuten oxigeno eduki handiko GO-aren erauzketarako. Kantitate handietako KMnO<sub>4</sub> eta H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> presentziarekin batera NaNO<sub>3</sub>-ren ordez azido fosforiko (H<sub>3</sub>PO<sub>4</sub>) kantitate txiki bat erabili zen grafitoaren oxidaziorako.

Tour-en metodoaz ekoitztutako GO-ak (GO-TU) etekin handia, oxidazio-maila handia eta akats gutxiko egitura ona du beste metodoekin alderatuz. Hummers metodoarekin alderatuta, hobetutako metodo honek talde hidrofiloen kontzentrazio handiagoa eskaintzen du grafeno oxidatuan. Horrez gain, Tour-en metodoa beste oxidazio metodo batzuk baino seguruagoa da, gas toxikoen isurketa gabe eta tenperatura baxuko berokuntza (50 °C) erabiliz [54]. Tour metodoaren abantailek GO-aren eskala handiko ekoizpenerako arrakasta bermatzen dute [55].

Hala ere, oxidazio metodo konbentzionalez zein hobetutako metodoez (Hummers, Tour...) lortutako GO-ak akats gehiago ditu, hala nola, zimurrik, zuloak, ezpurutasunen presentzia eta forma irregularra, mekanikoki ekoitzitako grafenoak baino.

#### 1.2.1.3.2 Erreduktzio metodoak

Erreduzitutako grafeno oxidoa GO-aren oxigeno edukia minimizatzeko eta akatsak konpontzeko moldaketa bat da. Ikertzaileek jakinarazi dute rGO-ak grafeno puruaren antzeko ezaugarriak dituela, batez ere gainazaleko propietateei eta propietate mekaniko, termiko eta elektrikoei dagokienez [56]. Hala ere, erreduktzioaren ondorengo produktua ez da grafeno puruaren berdina kristaleko akatsak eta oxigeno hondar batzuk daudelako. Akats hauek alde batera utzita, GO zein rGO hainbat aplikazio desberdinatan erabili dira.

Atal honetan, jada aipatutako erreduktzio prozesuetatik erabilienak diren prozesu kimikoa eta elektrokimikoa aztertuko dira.

- Metodo elektrokimikoa

Grafeno oxidoaren erreduktzio elektrokimikoa giro-tenperaturan egin daiteke zelula elektrokimiko bat erabiliz disoluzio akuoso ez-toxico baten edo elektrolito baten presentzian. GO filma substratu eroaleetan (ITO, urea...) edo substratu isolatzaileetan (beira edo plastiko malgua) isurtzen da [57]. Erreduktziorako potentzia elektrikoa erabiltzen ari den bitartean elektrodoaren gainazalean GO filmak txertatzen badira oxigeno taldeak eliminatzen dira. Erreduktzio elektrokimikoaren errendimendua elektrolitoa, disoluzioa eta elektrolisi parametroak aldatuz doitu daiteke [58].

Erreduktzio elektrokimikoa kalitate altuko rGO ekoizpenerako metodo erraza, azkarra, ekonomikoa izateaz gain, ingurumena errespetatzen du. Azkenaldian, GO erreduktziorako hainbat elektrodo aztertu dira, hala nola, disolbatzaile organikoak [59], metal alkalino eta lurralkalino kloruroak [60], propileno karbonatoa eta azetonitriloa [61]. Metodo honek abantaila asko izan arren, zaila litzateke eska handiko produkzioa, izan ere erronka handia da GO kopuru handiak elektrodoetan isurtzea.

- Metodo kimikoa

Grafenoaren antzeko material kantitate handiak lortzeko teknikarik erakargarriena eta erabiliena da GO-aren murrizketa kimikoa. Normalean disoluzio akuoso eta beste GO disoluzio batean egiten da, zeinetatik GO edo GO konposatura substratu batean isurtzen den. Erreduktzio kimiko metodoak agente erreduktore kimikoak erabiltzean datza oxigeno

funtzionaltasunak ezabatzeko eta rGO ekoizteko [62]. GO-aren erreduktio kimikoa giro tenperaturan/beroketa moderatuaz gauzatu daiteke tresna sofistikaturik gabe; horrela, grafeno ekoizpenerako eskalagarria den teknika ekonomiko eta erraztat hartzen da [63].

Orain arte, hainbat agente erreduzitzale erabili dira baina ohikoenak giro tenperaturan funtziona dezaketenak dira. Agente erreduzitzalearen hautaketa egokia egitea erabakigarria da batzuk produktu kimiko arriskutsuak/toxikoak direlako. Beste agente batzuk, ordea, ingurumena errespetatzen dute eta erreduktioaren ostean rGO hutsa ematen dute. Erabili ohi diren hainbat agente erreduzitzaleak hidrazina ( $N_2H_4$ ), litio aluminio hidruroa ( $LiAlH_4$ ), burdin/aluminio hautsa, azido klorhidrikoa ( $HCl$ ) azido azetikoarekin ( $C_2H_4O_2$ ), sodio boro hidruroa ( $NaBH_4$ ), hexilamina ( $C_6H_{15}N$ ), amoniakoa ( $NH_3$ ), alkohola eta beste hainbat dira [64, 65].

Gehien erabilia izan den hidrazinaren toxikotasunaren ondorioz ordezkapen "berdeak" aztertu dira. Hala nola, rGO ekoizteko ura, alkoholak/fenolak, metal azido/baseak, azido organikoak, mikroorganismoak, landare-estraktuak, aminoazidoak, bitaminak, proteinak eta hormonak (melatonina eta dopamina) erabili dira [66-68]. Erreduktio prozesu tipiko batean erreduzitzale eta GO disoluzio dispersatuaren arteko erreakzioa ematen da, zeina kontrolatutako tenperatura batean mantentzen den behar den denbora-tarterako erreduktio eraginkorra lortzeko.

Zenbait kasutan, agente berde bat ez da nahikoa GO erabat erreduzitzeko; agente gehigarri bat beharko da erreduktioan laguntzeko edo agente egonkortzaile bat agregazioa saihesteko. Hau honela, eskala handiko rGO ekoizpenerako agente berdeen erabilera ikerketa fasean dago oraindik.


## **1.2.2     *Bottom-up metodoak***

Bottom-up metodoa aitzindari molekularren eraikuntza-blokeetatik abiatuz grafenoa ekoiztean datza. Horretarako, lurren-deposizio kimiko (*Chemical Vapor Deposition, CVD*) edo hazkunde epitaxial metodoak erabiltzen dira bestek bestea.

### **1.2.2.1     *Lurren-deposizio kimikoa***

Grafenoaren lurren-deposizio kimikoa (CVD) substratu metaliko desberdinekin lor daiteke eta geruza-meheko teknologiekin bateragarria da. Metodo hau eskalagarria denez, grafenoaren erauzketa industrialaren beharra asetzten du.

CVD metodoan azetilenoa ( $C_2H_2$ ) edo metanoa ( $CH_4$ ) bezalako aitzindari gaseoso bat berotutako gainazal metaliko batean isurtzen da (Irudia 1-19) [69]. Bertan, isuritako hidrokarburoaren egitura apurtzen da karbono formak sortuz. Jarraian, eratutako karbono formak metalean metatu edo disolbatzen dira. Erreakzioaz eratutako karbono eta hidrogeno erabil gabeak erreakzio-ganberatik kanpo ponpatzen dira.



**Irudia 1-19. Grafenoaren CVD erauzketa prozesua [69]-tik eratorria**

Erauzketa prozesu honetan hainbat parametro doitu daitezke. Parametrorik garrantzitsuena substratu gisa erabiltzen den metala da, izan ere metal batzuek ondo grafitizatutako geruzak osatzeko gaitasuna dute. Horrez gain, hidrokarburoen egitura hausketa katalizatu dezakete hazkunde-temperatura jaitsez.

Gaur egun, nikela eta kobrea dira prozesu honetarako metalik egokienak. Izan ere, metal hauek karbonoarekin duten elkarrekintzaren indarra moderatua da eta egitura sareak grafitoarekin bat egiten du. Deposizio kopurua eta egitura karbono atomoen difusioaren, substratuaren morfologiaren eta prozesuaren termodinamikaren araberakoa izango da. Adibidez, nikelak karbono nanohodiak ematen ditu nanopartikula forman dagoenean eta, aldiz, grafenoa ematen du film mehe gisa erabiltzen denean.

#### 1.2.2.1.1 Nikelean hazia

Silizio substratuetan termikoki-hazitako silizio dioxido ( $\text{SiO}_2$ ) filmean (300 nm) nikel (Ni) filmak (200 nm) prestatzen dira. Substratu hauek hodi-labe batean (Irudia 1-20) berotzen dira temperatura altuetan (950 edo 1000 °C). Hidrogeno eta argon nahasketaz (1:1) bost minutuz erreduzitu ondoren, argon fluxua mozten da eta azetilenoa ( $\text{C}_2\text{H}_2$ ) txertatzen da. Jarraian, nitrogeno fluxuaz substratuak hozten dira.



**Irudia 1-20. Laborategiko hodi-labea [70]-etik eratorria**

Geruzan sortzen diren karbono-filmen lodiera gas aitzindariaren esposizio-denbora eta prozesuko beste ezaugarri batzuk aldatuz kontrola daiteke. Frogatu da nikelaren temperatura altuetan disolbatutako karbonoa gainazaletik bereizten dela hau hoztean, grafenoa lortuz [71].

Mekanismo hau zehatzagoak izateko bi prozesuen konbinazioan datza: karbonoaren berezketa substratutik eta gasaren alderantzizko sublimazioa. Nikelaren izaera katalitikoa dela eta hazkuntza grafitikorako lagungarria da.


#### 1.2.2.1.2 Kobrean hazia

Kobreaz (Cu) ematen den lurrun-deposizio kimikoan, nikelarekin alderatuz, hazkunde soilik gainazalean ematen da, izan ere, karbonoak disolbagarritasun baxua du kobrean. Izan ere, ikerketa mikroskopikoak Cu gainazaleko grafeno uharteen alboko hazkunde adierazi du [72]. Rasool eta kolaboratzaileek [73] frogatu bezala, kobrean grafeno estaldura uniformea ematen da edozein kristal orientazio, geruzen arteko koska-izkina eta abar dela ere. Hau kobreak gas aitzindariekin duen akzio katalitiko ahulen ondorio da eta beraz, hazkunde grafitikoa ez da nahitaez kobre gainazaleko kosketan hasi edo gelditzen.

Aipatutako ikerketan purutasun handiko kobrezko xaflak erabili ziren kuartzozko hodi-labe batean. Xaflak labean sartu eta 1000 °C-ra berotu ziren hidrogeno-fluxu bat aplikatuz. Temperatura horretan 15 min itxaron ondoren, metanoa ( $\text{CH}_4$ ) sartu zen labean. Metano-fluxua itxi egin zen 20 minuturen buruan eta labea aire konprimatuarekin hoztu zen laginen gaineko hidrogeno-fluxua mantenduz. Batez ere geruza bakarreko grafenoa atera zen labetik giro-temperaturan. Hala ere, geruza bikoitzea eta hirukoitzeko grafenoa aurkitu zela kobrezko xafletako adabaki isolatu batzuetan.

#### 1.2.2.2 Hazkunde epitaxiala


Grafenoa substratu hexagonal baten (silizio karburoa, SiC) deskonposizio termikoaren (1200-1600 °C) bidez ekoitz daiteke [74]. Temperatura altuko tratamenduak silizioaren sublimazioa eragiten du (Si fusio-puntuoa=1100 °C) eta gehiegizko karbono atomoak batuz grafenoaren hazkuntza eragiten duen sare hibridatu bat eratzen du (Irudia 1-21). Prozedura hau grafenoaren SiC hazkunde epitaxial izenpean ezagutzen da. Hala ere, metodo honen bidez ekoizten den grafenoa ez da homogeneoa [75].



**Irudia 1-21. Grafenoaren SiC hazkunde epitaxial prozesua [76]-tik eratorria**

2013. urtean silizio karburoaren eta politetrafluoroetilenoaren (PTFE) arteko erreakzio exotermiko berri bat ezagutu zen [77]. Hala ere, ingurumen kezka sortu zen sintesian tetrafluoroetilenoa ( $\text{C}_2\text{F}_4$ ) askatzen zelako, nahiz eta kalitate handiko grafenoa eta funtzionamendu simplea izan.

Gaur egungo erauzketa baldintzetan oinarrituta, grafenoaren hazkunde epitaxiala garestia da energia intentsiboko prozesuagatik eta SiC substratu komertzialen tamaina mugatuagatik [78]. Horrez gain, hazkunde epitaxialak aurpegia polar desberdinak sor ditzake, hala nola Si aurpegia edo C aurpegia (Irudia 1-22), grafeno produktuaren kalitatea jaitsiz. Kasu honetan, Si aurpegiko grafenoaren eraketa hobesten da grafenoaren hazkuntza homogeneoa bermatzen baitu [76]. Metodo hau erabiliz, temperaturaren araberakoa den grafenoaren geruza kopurua modula daiteke. Erauzketa metodo hau oraindik berrikuspen fasean dago, izan ere, grafenoaren eta substratuaren arteko hazkuntza-mekanismo eta elkarrekintzari buruzko datuak urriak dira.



*Irudia 1-22. Silizio karburoko C eta Si aurpegi polarrak [79]-tik eratorria*

## 2. GRAFENOAREN APLIKAZIOA ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN: EGUZKI ENERGIA FOTOVOLTAIKOA


### 2.1 EGUZKI ENERGIA FOTOVOLTAIKOA

Eguzkian hidrogeno atomoen arteko fusioaren bidez energia sortzen da, eta energia horren proportzio txiki bat lurreko azalera iristen da erradiazio itxuran. Sistema fotovoltaikoek, eguzki-energia energia elektriko bihurtzen dute efektu fotovoltaikoaren bidez.

#### 2.1.1 Zelula fotovoltaikoa eta efektu fotovoltaikoa

Efektu fotovoltaikoa ahalbidetzen duen gailu elektronikoari zelula fotovoltaikoa deritzo. Zelula fotovoltaikoak, funtsean, modu ezberdinean dopatutako bi erdieroalez osatzen dira: n-motako erdieroalea (anodoa) eta p-motako erdieroalea (katodoa). Berezko erdieroaleak ezin dira erabili elektrizitatea sortzeko, izan ere, hauetan aurkitzen diren elektroiak ausaz mugitzen dira, inongo intentsitaterik sortu gabe.

Hau honela, gaur egungo erdieroale intrintseko erabilienak silizioa (Si) eta germanioa (Ge) dira. Silizio zein germanioak lau balentzia-elektroi dituzte kanpoko azalean eta beraz, lau lotura kobalente. Bestalde, dopatzairen elementu ohikoena fosforoa (P) eta boroa (B) dira, bost eta hiru balentzia-elektroiekin hurrenez hurren. Fosforoarekin n-motako erdieroalea sortzen da, elektroi aske bat izanik fosforo atomo bakoitzeko (Irudia 2-1). Boroarekin, aldiz, p-motako erdieroalea sortzen da, hutsune bat izanik boro atomo bakoitzeko.




*Irudia 2-1. N-motako eta p-motako silizio erdieroaleen egitura*

Aurreko adibideak orokortasunera ekarriz, anodoen kanpoko geruzan atomoek elektroi gehigarri bat izango dute. Elektroi hau aske mugi daiteke kristalean eta beraz, karga elektrikoa garraia dezake. Katodoan, aldiz, atomoek hutsune bat izango dute. Ondoko atomoetako elektroiek hutsune hau bete dezakete, hutsune berria beste leku batean sortuz. Hau honela, bi erdieroaleak elkartzen baditugu elektroiak anodotik katodora joango dira hutsuneak betez oreka batera heldu arte.

Bat-egite honetan, karga-eramaile (elektroi eta hutsune) gutxirekin osatutako gunea sortzen da. Gune honi karga espazialeko gunea deritzo (Irudia 2-2). Katodo eta anodo geruzak elkartzerakoan elektroien difusioa ematen da eta elkargunean kontrako eremu elektrikoa sortzen da. Eremu elektrikoaren balio nahiko handira heltzerakoan difusioa gelditu egingo da.


Elektroi bakoitzak 2-2 irudian adierazitako bi energia maila izan ditzake:

1. Balentzia-banda ( $E_V$ ). Energia gutxiko egoera da, elektroia lotura kobalenteen bidez loturik dago.
2. Eroale-banda ( $E_C$ ). Energia handiko egoeran elektroia aske dago. Egoera honetara heltzeko jasotako energia, fotoiak emana, elektroiak duen lotura apurtzeko haina izan behar da. Elektroia aske geratzeko behar den energia minimoari debekatutako-banda ( $E_g = E_C - E_V$ ) deritzo. Silizioaren kasuan:  $E_g(\text{Si}) = 1,14 \text{ eV}$ . Balio hau temperaturaren menpekoa da.



**Irudia 2-2. Eremu elektrikoa karga espazialeko gunean eta energia-banden diagrama**

Zelula fotovoltaikoa eguzkiari begira jarri ezkero, heltzen diren fotoiek lotura kobalenteak apurtzen dituzte elektroi askeak sortuz. Juntura-gunean ematen den eremu elektrikoari esker, elektroiak n-erdieroalerantz joango dira eta hutsuneak p-erdieroalerantz (Irudia 2-3). Egoera honetan zelularen muturretan sortzen den tentsioari zirkuitu irekiko tentsioa deritzo ( $V_{oc}$ ). Zirkuitu elektrikoa itxita badago, ordea korrontea izango dugu.




**Irudia 2-3. Elektroien eta hutsuneen mugimendua zelula fotovoltaikoan [80]-tik eratorria**

Hala ere, elektroi batzuk ez dira kontaktuetara heltzen bidean hutsune bat betetzen dutelako. Honi birkonbinazioa deritzo eta saihestu beharreko efektua da. Elektroi aske batek birkonbinatu baino lehen egiten duen batezbesteko distantziari difusio-luzera deritzo. Difusio-luzera materialaren menpekoa da.

Eguzki paneletan galerak surrealdeko kontaktuek eragindako birkonbinatze, islapen eta itzalpeen ondorioz suertatzen dira. Horrez gain, uhin-luzera handi eta txikiko erradiazio multzo handi bat ezin da erabili. Ez erabilitako energia zati handi bat bero eran disipatzen da.

## **2.1.2 Parametro fotovoltaikoak**

Eguzki-zelulak n eta p motako guneak dituenez, diodo handi bat bezalakoa da. Bai diodoak eta baita eguzki-zelulek ere antzeko ezaugarriak dituzte. Diodoaren intentsitate ekuazioa eta honen I-V diagrama ondorengo 2-4 irudian azaltzen dira:



#### **Irudia 2-4. Diodo baten I-V erlazioa**

Non:

Io≡ Alderantzizko asetasun korrontea [A]

$V_D$  ≡ Diodoaren tentsioa [V]


m ≡ Diodo-faktorea [-], bere balioa 1 eta 2-ren artekoa da

$V_T = K \cdot T$  ≡ Temperatura-tentsioa [V]

$K = 8,62 \cdot 10^{-5} \text{ eV/K}$  ≡ Boltzmanen konstantea [-]

T $\equiv$  Temperatura [K]

Zelula baten parametro fotovoltaikoak azaltzeko diodo bakarreko zirkuitu-baliokideaz baliatzen da (Irudia 2-5) [81]. Diodo bakarreko zirkuitu-baliokidea fotokorronteaz ( $I_{ph}$ ), diodoaz ( $D$ ), serieko erresistentziaz ( $R_s$ ) eta paraleloko erresistentziaz ( $R_{sh}$ ) dago osatua.



**Irudia 2-5. Zelula fotovoltaiko baten diodo bakarreko zirkuitu-balioikidea [81]-etik eratorria**


Zirkuitutik ondorengo tentsio eta intentsitate ekuazioak ondorioztatzen dira:

$$V_D = V + R_S \cdot I$$

$$I = I_{ph} - I_D - I_{sh} = I_{ph} - I_O \left( e^{\frac{V_D}{m \cdot V_T}} - 1 \right) - \frac{V_D}{R_{sh}}$$

$$I = I_{ph} - I_O \left( e^{\frac{V+R_S \cdot I}{m \cdot V_T}} - 1 \right) - \frac{V + R_s \cdot I}{R_{sh}}$$

Azken ekuazioa I-V diagramara eramanik, 2-6 Irudian erakusten diren zelula fotovoltaikoaren I-V eta P diagramak lortzen dira.



**Irudia 2-6. Zelula fotovoltaikoaren I-V eta P diagramak**

Zelula fotovoltaikoen azterketa egiterakoan grafikoko hiru puntu desberdinei erreparatzen zaie: zirkuitu laburreko puntu, potentzia maximoko ( $P_{MP}$ ) puntu eta zirkuitu irekiko puntu. Errealitatean zaila da zuzenean potentzia maximoko tentsioa ( $V_{MP}$ ) edo korrontea ( $I_{MP}$ ) neurtea eta beraz, zirkuitu laburreko intentsitatea ( $I_{sc}$ ) eta zirkuitu irekiko tentsioa ( $V_{oc}$ ) neurtuaz kalkulatzen da zelularen konbertsio errendimendua (PCE).

$$PCE = \frac{V_{MP} \cdot I_{MP}}{A \cdot E} = \frac{V_{oc} \cdot I_{sc} \cdot FF}{A \cdot E} = \frac{V_{oc} \cdot J_{sc} \cdot FF}{E}$$

Non

$A \equiv$  Zelularen azalera [ $m^2$ ]

$E \equiv$  Eguzki irradientzia [ $W/m^2$ ]

$J_{sc} \equiv$  Zirkuitu laburreko intentsitatea [ $A/m^2$ ]

$FF \equiv$  Fill factor [-]


Eguzki irradientzia eguzkitik jasotzen den potentzia dentsitatea da, neurketa-baldintza estandarretan (*Standard Test Conditions, STC*)  $1000 W \cdot m^{-2}$  balioa du. Bestalde, *fill factor*-ak zelularen kalitatea adierazten du eta lortutako potentzia maximoaren eta potentzia teoriko maximoaren arteko erlazioa bezala definitzen da. Bere balioa serieko zein paraleloko erresistentzien eta zelulako galeren araberakoa da. Paraleloko erresistentzia handiagotuz eta serieko erresistentzia txikituz *fill factor*-a handitzen da [82]. Orokorean *fill factor* balioa % 50 eta % 82 artean aurkitzen da.

## 2.2 GRAFENOAN OINARRITUTAKO ZELULA FOTOVOLTAIKOAK

Sistema fotovoltaikoetan txertatzeko asmoz, grafenoa eta bere eratorrien ikerketa zabala aurrera eramaten ari da hauen gardentasun optiko handia, eroankortasun elektriko altua eta erresistentzia mekaniko handia direla eta. Propietate hauek pisu desberdina izango dute grafenoaren funtzioren arabera.

Zelula fotovoltaikoen sailkapena egiterakoan, erabilitako materialari erreparatzen zaio. Hau honela, hiru talde ezberdintzen dira:

1. Lehenengo generazioko eguzki zelulak. Merkatuan eskuragarri dauden zelula ohikoenak dira. Talde honetan silizio monokristalinoa eta multikristalinoa aurkitzen dira.
2. Bigarren generazioko eguzki zelulak. Siliziozko eguzki zelulen material kantitate handien eta kostu altuen ondorioz geruza-meheko zelulak egin dira. Hauek, nanometro gutxi batzuko lodiera dute.
3. Hirugarren generazioko eguzki zelulak. Orokorean geruza anitzeko (*tandem*)zelulak dira. Talde honetan koloratzailez sentsibilizatutako eguzki zelulak, perovskita zelulak, zelula fotokimikoak, puntu kuantikoetako zelula, *bulk heterojunction* (BHJ) zelula organikoak eta beste hainbat daude [80].




**Irudia 2-7. Zelula fotovoltaikoen sailkapena**

Lan honetan hirugarren generazioko hiru eguzki zelula aztertuko dira: *bulk heterojunction* (BHJ) eguzki zelula organikoak, perovskita eguzki zelulak eta koloratzailez sentsibilizatutako eguzki zelulak (DSSC). Guzti hauek gaur egun suspertze prozesuan daude.

### **2.2.1 Bulk heterojunction eguzki zelula organikoa**

Eguzki zelula organikoen (*Organic Solar Cell*, OSC) berezitasun nagusiena hauen konposizioan datza: karbonoan oinarritutako materialez osatzen dira. Hau dela eta, askotan plastikozko zelula edo polimerozko zelula bezala ezagutzen dira. Gailu fotovoltaikohauet iraunkorrak, malguak eta kasu batuetan gardenak izaten dira. Zelula organikoak funtzio konkretu bat betetzen duten geruza desberdinez osatzen dira: anodoa eta katodoa, geruza aktiboa eta *buffer* geruzak.


Geruza aktiboa polimero erdieroalea da, zeinak fotoiak xurgatzeko funtzioa duen. Bertan, fotoiek emandako energiari esker, elektroi askeak lortzen dira. *Bulk heterojunction* (BHJ) zeluletan geruza aktiboa elektroi emaile (*donor*) eta hartzale (*acceptor*) arteko konposatu bi-jarraia da (Irudia 2-8) [83]. Elektroi-hutsune lotura apurtzean elektroiak hartzailera joango dira eta hutsuneak, aldiz, emailera, karga bereizketa emanik. BHJ-ren morfologiak elektrodoetarako bide jarraitua sortzen du karga era eraginkorrean biltzeko [84].



**Irudia 2-8. BHJ zelula: geruza aktiboko emaile-hartzaile konposatura [83]-tik eratorria**

Aldiz, elektrodoen eta geruza aktiboaren arteko kontaktu zuzenak korronte-ihesaren bidez birkonbinazioa eragiten du. Korronte-ihesaren minimizaziorako geruza aktiboaren/elektrodoen interfazean geruza funtzionalak behar dira. Geruza gehigarri hauek, *buffer* geruza izenpean ere ezagunak, oso selektiboak dira karga mota zehatz bat (elektroia edo hutsunea) pasatzen uzteko eta bestea (hutsunea edo elektroia) blokeatzeko. Bi buffer geruza izango ditugu beraz: hutsune-garraiatzaile geruza (HTL) eta elektroi-garraiatzaile geruza (ETL).

Laburbilduz, zelula mota hauek orokorrean elektrodo anodo eta katodoez, elektroi-garraiatzaile geruzaz, geruza aktiboa eta hutsune-garraiatzaile geruzaz osatzen dira (Irudia 2-9) [85]. Aldi berean, geruza aktiboa karga-emaileaz eta karga-hartzaileaz osatua dago.




**Irudia 2-9. BHJ zelula baten geruza desberdinak [85]-etik eratorria**

### 2.2.1.1 Grafenoa elektrodotzat

Zelula fotovoltaiko organikoetako elektrodoak bereziki gardenak eta eroaleak izan behar dira. Ezaugarri hauek betetzeko ITO (indioz dopatutako eztainu oxidoa) eta fluorraz dopatutako eztainu oxidoa (FTO) dira gehien erabilitako elektrodoak. Eragozpen batzuk daude, ordea, ITO-ren kasuan: pH baxuei sentikorra da, indioaren urritasuna dela eta kostu handiko prestakuntza du, oinarri malguetan erraz pitzatzen da eta abar. Arazo hauengatik eguzki zelulen industrian gardentasun onargarriko, eroankortasun altuko eta egonkortasun kimikoa duen elektrodo malgua bilatzen da ordezkotzat [69].


Azken aldian ikerketa asko aurrera eraman dira grafenozko materialak eguzki zelula organikoetan txertatzeko. Zelula malguetan grafenozko anodo eta katodoekin % 6,1 eta % 7,1-eko energia konbertsio errendimenduak lortu dira hurrenez hurren [86]. Aplikazio honetan kostu eraginkorreko eta eskala handiko *roll-to-roll* (R2R) prozesuaz (Irudia 2-10) panel organikoak fabrikatu litezke, substratuari ondorengo geruza guztiak aplikatuz. Honek grafenoa ITO ordezkatzeko material esperantzagarria bihurtzen duelarik [87].



**Irudia 2-10. Roll-to-roll prozesua [88]-tik eratorria**

Grafenoaren erauzketari erreparatuz CVD metodoaz neurri handiko (<30 hazbete) grafeno xaflak lortzen dira, eroankortasun handiarekin eta geruza kopurua kontrolatzeko ahalmenarekin. Honen ondorioz, beste erauzketa metodoekin baino eraginkortasun handiagoa izatera eramaten du. Bestalde, grafenozko film-eten transmitantzian dago gakoa. Li eta kolaboratzaileek [24], CVD grafenoan oinarrituz zelula organiko malguak fabrikatu zituzten. Lau geruzako grafenoa goi elektrodo gardentzat erabiliz % 90-eko transmitantzia lortu zuten, ITO-rekin lehiakorra dena. Grafenoak eragindako airearen barriatzeko geldoari esker material organikoen degradazioa moteldu zen, errendimenduaren sekulako egonkortasuna lortuz.

Jakinarazi da geruza bat baino gehiagoko grafenoa abantailatsua dela geruza bakarreko grafenoaren aldean, eroankortasun handiagoa eta airearen difusio txikiagoa duelako. Esfoliazio likidoaz eratutako geruza bakarreko, bikoitzeko eta hirukoitzeko grafenoak ~150, 20 eta 8 k $\Omega$ -eko erresistentzia eta % 93, % 88 eta % 83-ko transmitantzia (1000 nmko uhin-luzeran) kontserbatzen du, hurrenez hurren [89]. Bestalde, CVD metodoaz eratutako geruza bakarreko, bikoitzeko eta hirukoitzeko grafenoak % 97,4 , %95,1 eta % 92,9-ko transmitantzia (550 nm-ko uhin-luzeran) du hurrenez hurren (Irudia 2-11) [90]. Beraz, elektrodo eroale gardenetan beharrezkoa da gardentasunaren eta eroankortasunaren arteko balantza optimoa lortzea.




**Irudia 2-11. Geruza desberdinakoko CVD grafenoaren transmitantzia uhin-luzeran zehar [90]-etik eratorria**

Aurretik aipatu den bezala CVD grafenoak eraginkortasun hobea du GO eratorriak eta kimikoki esfoliatutako grafenoak baino, kalitate eta eroankortasun hobea duelako. Alabaina, CVD metodoak erreprodukzio, masa produkzio eta sintesi osteko tratamendu zaitasunak ditu. Aitzitik, rGO-tik eratorritako grafenoak erraztasunez sor ditzake koloide akuoso egonkorra eta eskala handiko ekoizpenerako aukera egokia da [91].

### 2.2.1.2 Grafenoa geruza aktiboan


Aipatu bezala, geruza aktiboan elektroi-hutsune lotura apurtzen da fotoien energiaz baliatuz. BHJ zeluletan karga-hartzaile eta karga-emaile geruzak homogeneoki nahastuak dira beraien arteko distantzia txikia izan dadin geruza osoan zehar, kitzitoien disoziazioa erraztuz. Gertaera hau konkretuki karga-emailean ematen da (Irudia 2-12) eta beraz, eroankortasun elektriko altua izan behar du. Bestalde, argiaren xurgapenerako eta elektroia erraz askatzeko karga-emailearen debekatutako-banda ( $E_g$ ) 1,5 eV bezain baxua izan behar da [92]. Bestalde, karga erauzketa eraginkorra bermatzeko zelularen banda-egitura sistematikoki lerrokatu behar da. Horrez gain, elektroien birkonbinazioa eta aurkako noranzkoan joatea ekidin dadin emailearen eta hartzailearen eroale-bandaren ( $E_c$ ) balio baxuenen (LUMO) arteko energia-aldea 0,3-0,5 eV ingurukoa izan behar da [93].



**Irudia 2-12. Geruza aktiboko materialen energia-banda diagrama [92]-tik eratorria**

Fulerenoa, grafenoaren deribatu garrantzitsu bat, karga-hartzaile material arrakastatsuena da zelula organikoetan. Zehazki, fulerenotik eratorritako PCBM-a (fenil-C<sub>61</sub>-azido butiriko metil ester) da gaur egun erabiliena. Hala ere, PCBM-aren energia bandak doitzeko zaitasuna dela eta, gailu hauen eraginkortasuna hobetzea mugatua dago [94]. Grafenoak karga mugikortasun handiagoa izanik, egokiagoa da doikuntza kimikorako eta energia banda doitzeko. Bere 2D egiturak karga-emailearekin interfaze eraginkorra eskaintzen du karga-transferentzia azkarragoa egiteko [95]. Propietate hauak grafenoa PCBM ordezkatzen hautagai alternatibo gisa izendatzen dute.

Lehenengo aldiz grafenoa karga-hartzaile materialtzat erabili zen zelula organiko batean P3HT eta P3OT (3-oktiltiofeno) polimero emaileekin batera [96]. Geruza aktiboan gehien erabiltzen diren materialak 2-13 irudian adierazten dira.



**Irudia 2-13. BHJ zeluletako karga-emaile/hartzaile materialak**


Gailu fotovoltaikoetan, korronte fotovoltaicoa mugatua da foto-induzitutako elektroi-hutsune loturen (kitzitoia) sorrera eta birkonbinazioa dela eta. Beraz, fotoiak korronte bihurtzeko tasa handiagoa izan dadin, emaile/hartzaile faseen dispersio nanometrikoa ezinbestekoa da [97].

Hala ere, elektroi-hartzaile gisa grafenozko materialak dituzten gailuek ezaugarri fotovoltaiko eskasagoak dituzte fulereno deribatuen aldean. Ondorioz, grafeno deribatuen diseinu eta azterketa zaindua beharko litzateke PCBMsaren ordezkapen onargarria izan dadin.

### **2.2.1.3 Grafenoa elektroi-garraiatzaile geruzatzat (ETL)**

Elektroi-garraiatzaile geruzaren funtzioa elektrodo katodikoaren errendimendua handitzea da, karga negatibo bilketan lagunduz eta hutsuneak blokeatuz. Adibide batzuk ematearren, ETL moduan n motako erdieroaleak ( $\text{TiO}_2$ ,  $\text{TiO}_x$ ,  $\text{ZnO}$ ) [85], n motako erdieroale organikoak(2,9 dimetil-4,7-difenil-1,10-fenantrolina, BCP) [98] eta elektrolito polimeriko konjugatuak erabiltzen dira [99].

Wang eta kolaboratzaileek [100] CVD grafenoa GO-ra oxidatu eta zuzenenean ETL moduan txertatu zuten ITO/PEDOT:PSS/PCDTBT:PC71BM/GO/Al gailuan. Fabrikatutako GO gailuak % 6,72-ko PCE-a erakutsi zuen  $J_{sc}=12,36 \text{ mA}\cdot\text{cm}^{-2}$  eta  $FF=% 63$  ezaugarri hobetuekin GO gabeko gailuarekin alderatuz ( $PCE=% 5,35$ ,  $J_{sc}=10,66 \text{ mA}\cdot\text{cm}^{-2}$ ,  $FF=% 58$ )(Irudia 2-14). Beste saiakera batean, ETL gisa GO/TiO<sub>x</sub> erabiliaz gailuak % 7,5-eko PCE-alortu zuen. Errendimenduaren igoera hau karga garraio hobekuntza eta eremu optikoaren zabalkuntzaren ondorio izan zen.



**Irudia 2-14. J-V ezaugarri diagrama [100]-etik eratorria**

Horrez gain, denbora luze baten ostean GO geruza zuen gailuak % 3-ko PCE jaitsiera erakutsi zuen. Hau emaitza ona da, GO geruza gabe % 56 jaitsi zela kontuan hartuta. Gailua airearekin kontaktuan dagoenean GO materialak oxigenoa sartzea, eta beraz degradazioa, egozten du.


### **2.2.1.4 Grafenoa hutsune-garraiatzaile geruzan (HTL)**

Hutsune-garraiatzaile geruzaren (HTL) helburua elektrodo anodoaren eraginkortasuna hobetzean datza, karga positiboak (hutsuneak) garraiatuz. Elektroia blokeatzeko eta geruza aktiboko polimero emailearekin kontaktu ohmikoa egiteko debekatutako-banda (Eg) zabala behar du. P motako metal oxido ( $\text{MoO}_3$ ,  $\text{V}_2\text{O}_5$ ,  $\text{NiO}$ ,  $\text{Cu}_2\text{O}$ ) ugariz gain PEDOT:PSS (sodio poliestireno sulfonatuz dopatutako poli(3,4-etilenodioxitofenoa)) da normalean erabiltzen den HTL-a. Hala eta guztiz, PEDOT:PSS-aren azidotasunak ITO elektrodoaren korrosioa eragin dezake eta PSS-aren izaera higroskopikoak errazten duen ur xurgapenak gailuaren degradazioa ahalbidetzen du. Horregatik, PEDOT:PSS beste material batengatik ordezkatzetik eraginkortasuna handitu liteke.

Hutsune-garaiatzale geruzaren erresistentzia altua dela eta, erronka handia da konbertsio efizientzia altuak mantentzea materiala aldatu ezkero. Hau kontuan hartuta, GO eta bere eratorriak gaitasun altua erakutsi dute elektroiak blokeatzeko eta HTL material kualifikatutzat hartu dira [69].

Esaterako, Yun eta kolaboratzaileek [101] GO, rGO (grafeno oxido erreduzitua) eta pr-GO (grafeno oxidoa p-TosNHNH<sub>2</sub> konposatuaz erreduzitua) elektroiak blokeatzeko geruza bezala erabili ditu ITO/HTL/P3HT:PCBM/Ca/Al zelulan. Gailuaren eraginkortasuna pr-GO erabiliaz esanguratsua da, PEDOT:PSS zelulekin lehiatzeko aukerak dituelarik. ITO zelularen konbertsio eraginkortasuna PCE=% 0,72 izatetik PCE=% 3,7 izatera pasa zen hutsune-garaiatzaleztat pr-GO txertatzean. Emaitzak benetan alderagarriak dira PEDOT:PSS zelulekin, PCE=% 3,6.

Horrez gain, denbora pasa ahala aire esposizioaren ondorioz errendimendu fotovoltaikoa murrizten doa (Irudia 2-15). Kapsulatu gabe, PEDOT:PSS gailuen PCEa ~% 0 izatera jaitsi zen 8640 minuturen ondoren. Aldiz, pr-GO-an oinarritutako zeluletan errendimendu altua erakutsi zen, hasierako PCEaren ~% 54 izanik 18720 minuto igaro ondoren. Honek aditzera ematen du GO-ak gaur egun erabiltzen den PEDOT:PSS-ak eragiten duen ITO elektrodoaren korrosio arazoa ezabatzen duela.



**Irudia 2-15. Zelularen narriadura denboran zehar [101]-etik eratorria**

Beste kasu batean, CVD GO hutsune-garaiatzale bezala erabili zen ITO/GO/P3HT:PCBM/Al gailuan [102]. Ikusi zen GO geruza loditzen joan ahala zelula organikoaren konbertsio eraginkortasunak murrizteko joera zuela. Geruza meheeneko filmak eman zituen emaitzarik onenak serieko erresistentziaren handitzeagatik (Irudia 2-16). Gainera, zelularen errendimendua PEDOT:PSS-rekin alderagarria da, zain ere, GO gailuetan elektroi birkonbinazio denbora handia da.


	V <sub>oc</sub> (V)	J <sub>sc</sub> (mA cm <sup>-2</sup> )	FF (%)	η (%)
ITO only	0.45	9.84	41.5	1.8 ± 0.2
PEDOT:PSS	0.58	11.15	56.9	3.6 ± 0.2
GO (2 nm)	0.57	11.40	54.3	3.5 ± 0.3
GO (4 nm)	0.57	10.22	33.9	2.0 ± 0.2
GO (10 nm)	0.59	7.84	18.8	0.9 ± 0.2

**Taula 2-16. Zelulen parametro fotovoltaikoak GO HTL-tzat erabilita [102]-tik eratorria**

## 2.2.2 Perovskita eguzki zelula


Perovskita eguzki zelulen funtzionamendua zelula organikoenen berdina da, diferentzia bakarra geruza aktiboan dago. Zelula hauetan geruza aktibotzat perovskita izeneko egitura duen edozein konposatu sintetiko erabiltzen da (Irudia 2-17). Zelula hauen egitura

kristalografiko bereizgarriaren ondorioz, fotoiak elektrizitate erabilgarri bihurtzeko oso eraginkorrik dira. Ezaugarri nagusien artean, aipatutako eraginkortasunaz gain, produkzio kostu baxua, malgutasun altua eta arintasuna aurkitzen dira [103].



**Irudia 2-17. Perovskita zelula fotovoltaiko baten egitura [104]-etik eratorria**

Perovskitak orokorrean  $AMX_3$  egitura du (Irudia 2-18), non A eta M tamaina desberdineko katioiak diren eta X halogenoa den, A bolumen handienekoa izanik. A katioi organikoak dira (normalean  $CH_3NH^+$ ,  $G_2H_5NH_3^+$ ) eta M katioiak, aldiz, metal ioi dibalenteak ( $Pb^{2+}$ ,  $Sn^{2+}$ ,  $Fe^{2+}$ ,  $Cu^{2+}$ ). Bestalde, halogeno erabilienak  $Cl^-$ ,  $Br^-$  eta  $I^-$  dira [105].



**Irudia 2-18. Perovskita egitura [105]-etik eratorria**


Azpimarratzeko da perovskita zelulen PCE-a %  $16 \pm 0,4$  izatera iritsi dela 16,29 cm<sup>2</sup>-ko modulu batean [106]. Hori dela eta, energia berriztagarrietatik datozen urteetako hautagairik itxaropentsuenetarikotzat jotzen da perovskita zelula fotovoltaikoa. Orain arte, estrategia asko proposatu dira zelula hauek hobetzeko: elektrodoen aldaketa [107], metalekin dopatutako ETL geruza txertatzea [108], gainazal modifikatuko perovskita xafla ezartzea [109], grafenozko materialak sartzea eta abar.

Konkretuki grafenoa eta bere deribatuen integrazioa perovskita zeluletan zabalki frogatua izan da. Konposaketa hauen egonkortasun kimiko eta energia maila egokiei esker perovskita zelulen funtzionamenduan eragin onuragarriak izan dituzte [110].

### **2.2.2.1 Grafenoa elektrodotzat**


Elektrodoak gardentasun handiko, xafla erresistentzia baxuko eta egonkortasun kimiko sendoko baldintzak bete behar ditu. Orain arte, material eroale gardenen kalitateak, hala nola grafenoa [111], karbono-nanohodiak (CNT) [112], polimero eroaleak [113] eta sare metalikoak [114] asko aztertu dira. Guzti horien artean grafenoa bere eroankortasun altu, gardentasun altu eta gainazal marruskadura baxuengatik etorkizun oparoko hautagaia da. Egun gehien erabiltzen den ITO (indioz dopatutako titanio oxidoa) baino malgutasun, egonkortasun kimiko, material lehengai iturri zabala, kostu baxu eta ezaugarri fotoelektriko hobeak ditu grafenoak.

2015. urtean, perovskita zelula zeharrargia fabrikatu zen geruza anitzeko grafenoa elektrodo garden moduan erabiliz [115]. CVD grafenoaren xafla erresistentzia murriztu egin zen grafeno xafla handitu ahala. Eroankortasuna, aldiz, izugarri hobetu zen PEDOT:PSS geruza fina txertatu ostean 2-19 irudian ikus daiteken bezala. Grafenozko elektrodoan oinarritutako perovskita zelulak batezbesteko PCE=% 12,02 izatea lortu da.



**Irudia 2-19. Xafla erresistentzia geruza kopuruaren arabera [115]-etik eratorria**

Bere malgutasun apartagatik Yoon eta kolaboratzaileek [116], geruza bakarreko CVD grafenoan oinarrituta, perovskita zelula malgua sortu zuten. Lortutako zelulak % 16,8-ko PCE maximoa izan zuen. ITO/PEN elektrodo malguekin alderatuz, MoO<sub>3</sub>-az dopatutako grafenozko elektrodoek (Gr-Mo/PEN) zelularen egonkortasun mekaniko hobia izatea ahalbidetu zuten. Horrez gain, PCE-aren % 12-ko degradazio onargarria eman zen grafenoan oinarritutako perovskita zelulan 4 mm-ko erradioko 5000 flexio ziklo ondoren (Irudia 2-20). Flexio erradioa 2 mm zenean, grafenoan oinarritutako gailuak hasierako PCE-aren % 85-a mantendu zuen 5000 ziklo ondoren.




**Irudia 2-20. Zelularen errendimendua flexio ziklo kopuruaren funtzoan [116]-etik eratorria**

Emaitzha hauek etorkizun oparoa aurreikusten diote grafenoan oinarritutako elektrodo malguei perovskita zelula tolesgarri eta eramangarriean.

### 2.2.2.2 Grafenoa perovskita geruza aktiboan

Frogatua izan da perovskita geruza aktiboan grafeno deribatuen presentziak errendimendua hobetzen duela. 2016ean nitrogenoz dopatutako rGO (N-rGO) sartu zuen perovskita halogenuroan [104]. Sortutako gailuak % 18,7-ko PCE zuen, erreferentiazko % 17,3-a baino altuagoa (Irudia 2-21).

**Irudia 2-21. Perovskita zelularen J-V diagrama [104]-tik eratorria**

Duela gutxi, rGO-zisteina/nanourre (rGO-CysAu) material hibridoa gehitu zen perovskita kristalaren tamaina handitzeko, karga transferentzia hobetzeko eta birkonbinazioa zein xafla impedantzia murrizteko [117]. Zelularen errendimendu handiena 0,04 mg/mL rGO-CysAu gehituaz lortu zen (Taula 2-22): PCE=% 20,59 ;  $J_{sc}=23,89 \text{ mA}\cdot\text{cm}^{-2}$  ;  $V_{oc}=1,09 \text{ V}$  ; FF=% 79,4. Bestalde, frogatu zuten rGO-CysAu konposatuak perovskita degradaziotik babestu zezakeela, berezko egonkortasun bikaina erakutsiz.

Devices	$J_{sc}$ ( $\text{mA}/\text{cm}^2$ )	$V_{oc}$ (V)	FF (%)	PCE (%)
Normal	21.69 ( $20.64\pm 0.64$ )	1.06 ( $1.07\pm 0.01$ )	79.7 ( $80.3\pm 0.79$ )	18.32 ( $17.64\pm 0.37$ )
0.02 mg/mL	22.08 ( $21.55\pm 0.37$ )	1.09 ( $1.08\pm 0.01$ )	81.1 ( $80.1\pm 0.76$ )	19.52 ( $18.65\pm 0.43$ )
0.04 mg/mL	23.89 ( $23.08\pm 0.53$ )	1.09 ( $1.08\pm 0.01$ )	79.4 ( $79.1\pm 0.84$ )	20.59 ( $19.61\pm 0.48$ )
0.08 mg/mL	20.11 ( $19.95\pm 0.28$ )	1.09 ( $1.08\pm 0.01$ )	73.8 ( $73.1\pm 0.85$ )	16.22 ( $15.67\pm 0.30$ )

**Taula 2-22. Zelularen rGO-CysAu kontzentrazio desberdinatarako parametro fotovoltaikoak [117]-tik eratorria**


### 2.2.2.3 Grafenoa elektroi-garraiatzaile geruzatzat (ETL)

Grafenoa eta bere deribatuak ETL gisa ere txertatuak izan dira perovskita zeluletan, hauen errendimendu hobetzea frogatu delarik. Esatearren, grafeno/ZnO nano konposatura (G/ZnO NC) ETL gisa ezarri zen perovskita zelula batean [118]. Grafenoaren % 0,75-eko kontzentrazio optimoak gailuaren funtzionamendua hobetzen du jatorriko ZnO zelularekin alderatuz  $J_{sc}$  15,54  $\text{mA}\cdot\text{cm}^{-2}$  izatetik 19,97  $\text{mA}\cdot\text{cm}^{-2}$ -ra pasaz eta PCE % 7,01 izatetik %10,34 izatera pasaz (Taula 2-23). Nano konposatuko grafeno sareak errendimendu fotovoltaikoa hobetu zuen perovskitaren pelikula meheko gainazalaren kristalinitatea eta morfologia hobetuz.

Device	$V_{oc}$ (V)	$J_{sc}$ ( $\text{mA cm}^{-2}$ )	FF (%)	PCE (%)
0.0 wt% G/ZnO	$0.792 \pm 0.03$	$15.54 \pm 0.98$	$51.64 \pm 1.24$	$7.01 \pm 0.66$
0.25 wt% G/ZnO	$0.861 \pm 0.02$	$16.34 \pm 0.95$	$52.41 \pm 1.08$	$7.36 \pm 0.08$
0.50 wt% G/ZnO	$0.943 \pm 0.05$	$18.44 \pm 1.31$	$50.81 \pm 1.56$	$8.81 \pm 0.17$
0.75 wt% G/ZnO	$0.926 \pm 0.07$	$19.97 \pm 1.08$	$56.31 \pm 1.18$	$10.34 \pm 0.18$
1.00 wt% G/ZnO	$0.951 \pm 0.04$	$19.24 \pm 0.76$	$51.23 \pm 1.36$	$9.37 \pm 0.48$

**Taula 2-23. Grafenoaren kontzentrazio desberdinatarako zelularen parametro fotovoltaikoak [118]-tik eratorria**

Duela gutxi, frogatu zen perovskita eta SnO<sub>2</sub> artean *quantum dot* grafenoa (GQD) txertatzeak (Irudia 2-24) elektroi erauzketan itxurazko hobekuntza sortu eta birkonbinazio karga ezabatu zezakeela [119]. Perovskita zelulak SnO<sub>2</sub>:GQD konposatuaz itzaltze fotolumeneszentiko (PL) eraginkorragoa du, elektroi erauzketa ahalmen hobea eta akats dentsitate baxuagoa baieztagatuz. GQD-ak elektroi tunel ikaragarri azkartzat jokatu dezake, perovskitako birkonbinazioa ekiditera eramanez [120].




**Irudia 2-24. PSC baten egitura SnO<sub>2</sub>:GQD ETL izanik [119]-tik eratorria**

Horrez gain, SnO<sub>2</sub>:GQDs oinarritutako ETL batek egonkortasun hobea erakusten du. Hasierako balioaren % 80 mantentzen du hilabetez ingurugiroko airearekin kontaktuan egon ondoren. Hau perovskita filmaren kalitatea eta perovskita/ETL arteko interfazea hobetzearen ondorio da [121]. Bien bitartean, SnO<sub>2</sub> konposatuaz bakarrik egindako ETL-ak PCE-aren hasierako balioaren % 65 mantendu zuen airera esposizio berdina izanik.

#### **2.2.2.4 Grafenoa hutsune-garraiatzaile geruzatzat (HTL)**


Perovskita zelula fotovoltaikoen egonkortasuna eta funtzionamendua hobetzeko GO eta rGO grafenoaren deribatuak hutsune-garraiatzaile geruzatzat txertatuak izan dira. Ohiko HTL den PEDOT:PSS konposatuak mugak erakutsi ditu egonkortasun eta efizientzian bere izaera higroskopikoaren eta elektroiak blokeatzeko gaitasun eskasaren ondorioz.

Grafeno oxidoz modifikatutako PEDOT:PSS HTL-a geruza fabrikatu zen GO soluzio bat PEDOT:PSS geruzaren gainean aplikatuz (Irudia 2-25) [122]. Oxidazio-erreduktion metodoaz lortutako grafeno oxidoa PEDOT:PSS geruzan zehar banatuta egoteak hezegarritasun handiagoa suposatu zuen. Ezagarri honek kalitate handiko perovskita geruza bat osatzen lagundi zuen, kristalizazio hobea eta poro gutxiago zituena. Gainera, GO txertatua izanik gailuaren PCE-a hasierako balioaren % 83,5 zen 39 egun ostean (Irudia 2-25). Bien bitartean grafeno oxido gabeko gailuan % 60-a mantendu zen. Emaitzha hauetan argi dago GO modifikazioak perovskita zelulen funtzionamendua eta egonkortasuna hobetzen dutela.



**Irudia 2-25. PCS baten egitura eta J-V zein narriadura diagramak GO-az modifikatutako PEDOT:PSS konposatura HTL izanik [122]-tik eratorria**

Bestalde, rGO konposatuak ezaugarri ia neutroak izateagatik, eroankortasun altua eta oxigenoaren eta hezetasunaren aurkako pasibazio ahalmen izugarriagatik,  $\text{CH}_3\text{NH}_3\text{PbI}_3$  motako perovskita zelulen deskonposaketa probabilitatea gutxitzeko hautagai egokia da [123]. Aipatutako zelulan rGO konposatura HTL-tzat erabili zuten batez beste PCE=% 9,95 errendimendua lortuz [124]. Ondorengo 2-26 irudian adierazten den bezala, erreduzitutako grafeno oxidoan oinarritutako gailuek hasierako PCE-aren % 62 mantendu zuten 140 orduko esposizioaren ostean.




**Irudia 2-26. PCS baten parametro fotovoltaikoak denboran zehar rGO HTL izanik [124]-tik eratorria**

### 2.2.3 Koloratzailez sentsibilizatutako eguzki zelula

Koloratzailez sentsibilizatutako zelula fotovoltaikoak (*Dye-Sensitized Solar Cell, DSSC*), Grätzel zelula izenpean ere ezagunak dira. Ezaugarri erakargarrien artean fabrikatzeko erraza, gardentasuna eta malgutasuna aurkitzen dira, erabilpen gama zabala eskaintzen dutelarik.

Funtzionamenduan murgildu aurrelik zelularen atalei erreparatzea komeni da. Koloratzaileaz sentsibilizatutako zelula fotovoltaikoak “sandwich” erakoak dira, 2-27 irudian adierazitako oinarritzko hiru atalekin:



**Irudia 2-27. DSSC egitura estandarra [125]-etik eratorria**

1. Foto-sensibilizatutako anodoa. Orokorean, pigmentatutako titanio dioxidozko ( $TiO_2$ ) geruza mehe batez gaineztatutako TCO (eroale oxido gardena) beira bat da, konkretuki FTO (fluorraz dopatutako eztainu oxidoa).
2. Elektrolitoa. Gaur egun elektrolito likidoak dira nagusi, batiz bat ioduro/triioduroa erredox potentzial egokia izateagatik.
3. Katodoa. Kasu gehienetan FTO beira eroalea da, baina kasu honetan platinoaz gaineztatua.

Zelula hauen funtzionamendua aurretik ikusitakoekiko desberdina da, izan ere, zelula foto elektrokimikoa da. Hau da, gailu honek elektrizitatea sortzen duen bitartean substantzia kimikoak sortzeko gaitasuna du. Koloratziale sentikortzailearen foto-eszitazioaren bidez elektroiak  $TiO_2$  nanopartikuletan injektatzen dira, ondoren elektrodo anodora igaroz. Koloratzailak emandako elektroiak elektrolito erreduzitzailletik berreskuratuko ditu. Aldi berean, azken hau elektrolito oxidatzailea erreduzitz birsortuko da [125]. Grafenoan oinarritutako materialak DSSC-ko atal guztiak txertatuak izan dira emaitza interesgarriak lortuz.

### **2.2.3.1 Grafenoa elektrodotzat**

Grafenozko materialak gehienbat katodo funtzioarekin txertatu dira koloratzailaz sensibilizatutako zelula fotovoltaikoetan. Eroankortasun altua eta elektrolitoaren erredox erreakzioa errazten duten propietate katalitikoak dituela eta, orain arte erabilia izan den platino (Pt) geruza ordezkatuko luke.

Aplikazio honetarako grafenoa oxidazio-erredukzio metodoaz eratutako grafenoa GO eta rGO forman erabili da [126]. Izan ere, oxigenoak elektrolitoaren erredox erreakzioan laguntzen du. Aztertu da DSSC-en PCE-a handiagoa dela grafeno oxidoaren erredukzio maila handitzean, eroankortasun eta karga-transferentzia hobeak erakutsiz [127].

Erredukzio termikoz eratutako GO-az lortu den PCE handiena % 6,81 da. Grafeno oxidoaren eroankortasun altuari esker elektrolitoaren erredukzioa areagotu eta karga birkonbinazioa ekiditen da [128]. Bestalde, 3D-tan hazitako grafenoak % 7,63-ko PCE onargarria erakutsi zuen platinoaren PCE=% 8,48-rekin alderatuz.

Grafenoa elektrodo katodotzat jokatuz lortu diren emaitza ikusgarrienak metalekin, metal oxidoekin eta polimeroekin dopatuz eman dira. Pt nanopartikulak rGO-an txertatuz osatutako elektrodoak Pt soilez bainatutako elektrodoak baino hobeto funtzionatzen du. Pt-grafeno zelula batek PCE=% 8,56 ikusgarria lortu zuen [129]. Bien bitartean GO gailuek PCE=% 4,48 eta Pt soilez bainatutako elektrodoek PCE=% 8,18 zuten (Taula 2-28).

CE	$J_{sc}$ (mA cm <sup>-2</sup> )	$V_{oc}$ (mV)	FF (%)	$\eta$ (%)
Pt-sputtered	16.80 ± 0.05	763.33 ± 2.36	63.84 ± 0.09	8.18 ± 0.08
Pt-NPs/RGO	16.66 ± 0.07	771.25 ± 2.17	66.67 ± 0.57	8.56 ± 0.10
GO	14.37 ± 0.27	775.00 ± 3.07	40.18 ± 0.36	4.48 ± 0.12

**Taula 2-28. DSSC-aren parametro fotovoltaikoak katodo desberdinekin [129]-tik eratorria**

Aldiz, grafenoa elektrodo anodotzat TiO<sub>2</sub>-arekin nahastuz txertatu zen PCE=% 6,97 lortuz. Emaitza ona lortu zen kontuan hartuz TiO<sub>2</sub> soilezko elektrodo anodoarekin PCE=% 5,01 lortu zela. Grafenoak TiO<sub>2</sub>-arekin 2D zubi bezala jokatzen du, argiaren dispersio altua eta birkonbinazio efektua zaitzen du larik [130].

### 2.2.3.2 Grafenoa elektrolito solidotzat

Elektrolito likidoak DSSC-eten gehien erabiltzen den karga garraiobidea dira ondorengo ezaugarri garrantzitsuengatik: prestaketa erraza, eroankortasun handia, biskositate baxua eta elektrodoen eta elektrolitoaren arteko interfaze hezetasun ona [105].

Hala ere, eragozpen handi bat dute, izan ere, elektrolito likidoetan disolbatzailea lurrundu egiten da. Ondorioz, zelularen barne-erresistentzia handitzen da karga-eramaileen kontzentrazioa jaitsiz eta koloratzailearen berreskurapena motelduz. Horrez gain, tenperatura altuetan ezegonkorak dira eta zelula malgu batean integratzeko zaitasunak ekartzen dituzte. Arazo hauei guztiei aurre egiteko, elektrolito organiko-inorganiko hibridoetan eta elektrolito polimerikoetan oinarritutako elektrolito solidoak garatu dira [105].

2013. urtean MPN-rekin (3-metoxipropionitriloa) nahastutako GO gelen eraketa burutu eta egoera ia solidoko elektrolito gisa aplikatu zen DSSC-eten [131]. Zelulek GO/MPN gelaz % 6,70-ko konbertsio eraginkortasuna erakutsi zuten, kontrol likidoaren baliotik (% 7,18) oso hurbil. Are eta hobekuntza gehiago lortu ziren dimentsio bakarreko (1D) horma anitzeko karbono-nanohodiak (*Multi-Walled Carbon Nano Tubes*, MWCNTs) GO/MPN gel konposatuan txertatuz [132]. Azken honetan % 7,12-ko konbertsio eraginkortasun maximora iritsi zen MWCNT kontzentrazio desberdinak frogatu ondoren (Taula 2-29).

MWCNT loading (wt%)	PCE (%)	$V_{oc}$ (V)	$J_{sc}$ (mA cm <sup>-2</sup> )	FF
0	6.54	0.76	11.45	0.75
0.125	6.80	0.79	11.64	0.74
0.25	7.12	0.79	11.97	0.75
0.5	6.79	0.78	11.83	0.73

**Taula 2-29. DSSC-aren parametro fotovoltaikoak elektrolitoko MWCNT kontzentrazio desberdinekin [132]-tik eratorria**

Grafenoan oinarritutako gelek elektrolito polimerikoek baino eraginkortasun handiagoa erakutsi dute eta beraz, elektrolito likidoak ordezkatzea hautagai egokienak dira.




### 3. GOGOETA KRITIKOA

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, helburutzat giza garapena bultzatzea duena gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan. Euskadiko mailara ekarrita, garapen jasangarrirako 17 helburu ezarri dira "Euskal Ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari" [133] dokumentuan. 13. helburuak "Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko" dio, helmugatzat energia berritzagarien erabilera bultzatzea izanik.

Helburu honetan eguzki zelula fotovoltaikoak kokatzen dira. Aipatu bezala, energia fotovoltaikoa energia berritzagarrietako bat da, zeinetan eguzki energia energia elektriko bihurtzen den. Energia konbertsioa hau CO<sub>2</sub> emisio gabekoa da, baina ingurumen, ekonomia eta gizarte inpaktu erreala aztertzeko zelula fotovoltaikoen bizitza ziklo osoa kontuan hartu behar da. Hau honela, zelulen produkzioa eta hondakinen kudeaketa era laburrean aztertu da ondorengo parrafoetan.

Produkzioari dagokionez, J. Antonanzas eta J.C. Quinn ikertzaileek [134] gaur egun oso erabiliak diren mono-Si eta poli-Si panelen energia kontsumo eta berotegi-efektuko gas emisio globalak aztertu zituzten (Irudia 3-1). Berotegi-efektuko gasen emisioen datuak bizitza ziklo osoan parte hartzen duten elementu guztiak kontuan hartzen ditu baina energia kontsumoko datuak panelen produkzioko datuetara mugatzen dira. Orokorrean ikus daiteke energia kontsumo zein gas emisioek beherakada izan dutela urteak aurrera egin ahala. Hala ere, aipatzeko da 2006-2010 urteetako gorakada. Denbora-aldi honetan panel fotovoltaikoen fabrikazioa Europan, Japonian eta Estatu Batuetan kokatzetik Txina eta Taiwanen kokatzera pasa zen. Aldaketa honek panelen fabrikazio eraginkortasun eta prozesuan erabilitako energiaren jatorrian inpaktua izan zuen. Izan ere, Txinan harrikatzetik lortzen dute energia gehiena.




*Irudia 3-1. Berotegi-efektuko gas emisioak eta elektrizitate kontsumoa KW-ko a) mono-Si b) poli-Si panel fotovoltaikoen produkzioan zehar [134]-tik eratorria*

Panel fotovoltaikoen ekoizpenerako lehengaien erauzketak eta fabrikazio-kokapenak duen eragina esanguratsua da, batez ere ur gezaren eutrofizaziori eta horrek dakarren ur-azpiko biziun askoren heriotzari eta tokiko pertsonen toxikotasunari dagokionez. Hau honela, gizarte alorra sartzen da jokoan. Nire iritziz, leku horietako politika publikoek ingurumenaren zein langile edo/eta biztanleen ongizatea bermatu beharko lukete. Gehienetan, ordea, segurtasun neurri guztiak hartzeak prozesuaren garestitzea

dakarrenez, herrialde batzuek irabazi ekonomikoen defentsaren hautua egiten dute, segurtasun zein lan-baldintza eskasak onartuz. Hau honela, azterlan sakon bat egin beharko litzateke plaka fotovoltaikoen produkzioaren leku aldaketaren arrazoia erreala zein den argitzeko eta leku hauetan ingurumen zein giza eskubideak betetzen direla ziurtatzeko.

Aipatutako plaka fotovoltaikoen erabilitako materialen erauzketek sortu izan dituzten produktu toxikoak murrizteko eta bide batez eraginkortasuna hobetzeko asmoz, grafenoaren inguruko ikerketa asko aurrera eraman dira. Materialaren propietate ikusgarriak direla eta zelula fotovoltaikoen zein beste teknologietan hobekuntzak ekar ditzake, baina grafenoaren inpaktu global erreala aztertzeko erauzketa prozesuen nolakotasuna ere kontuan hartu behar da.

Ingeniari Kimikoen Erakundearen (IChemE) jarraibideetan oinarrituta [135], grafenoaren erauzketa metodoen ebaluaziorako sei adierazle gako identifikatu dira: (i) kostua (material aitzindariaren kostua eta kostu operatiboak), (ii) eskalagarritasun potentziala, (iii) produktuaren kalitatea, (iv) prozesuaren baldintzak (prozesuaren segurtasuna eta konplexutasuna), (v) eraginkortasuna eta (vi) ingurumen inpaktua (produktu kimiko arriskutsuen erabilera) (Irudia 3-2). Metodo bakoitzaren emaitzak radar-diagrama bidez adierazten dira, non hobespen-puntuazio bat ezartzen zaion adierazle gako bakoitzari.



**Irudia 3-2. Grafeno erauzketa metodoen ebaluazioa: (a) Esfoliazio mekanikoa, (b) LPE, (c) oxidazio-erreduzioa, (d) CVD eta (e) hazkunde epitaxiala. Hobespen-puntuazioa: 0=daturik ez, 1=baxua, 2=normala, 3=altua. [135]-etik eratorria**

Esfoliazio mekaniko (a) eta hazkunde epitaxial (e) metodoen radar-diagraman ikusten den bezala, eskala txikira mugatzen dira. Hau honela, aurrerapen handirik ez egitekotan ez dira metodo bideragarriak zelula fotovoltaikoetan aplikatzeko. Puntuazio orokorrean oinarrituta, LPE (b) (16 puntu), oxidazio-erreduzio (c) (16 puntu) eta CVD (d) (13 puntu) metodoak gailentzen dira. Merkaturatze potentzial handia dute prozesuaren etekin eta grafeno kalitate ona dutelako.

Horietatik, oxidazio-erreduzio metodoa da bideragarriena grafitozko lehengaitik rGO xaflen ekoizpen masiboa eskaintzen duelako kostu baxuekin. Hala ere, karbono-kate hexagonalen deformazioaren ondorioz, produktu ez purua lortzea litekeena da eta aldi berean, propietate termiko, mekaniko eta elektrikoak okertu litezke. Ingrumen inpaktuari dagokionez, erreduzioan erabilitako hidrazina, boro hidruroak eta aluminio hidruroak bezalako substantzia toxikoak dira. Era berean, oxidazio prozesuan erabiltzen diren azido sulfurikoa eta potasio permanganatoa ere kaltegarriak dira ingurumenarentzat. Hala ere, agente erreduzitzairen berdeen garapenak kimiko toxikoen ondorio kaltegarriak minimizatuko lituzke.

Grafenoaren CVD metodoak ere merkaturatze egokia du ekoizten den grafenoaren kalitate handiagatik eta grafenoaren deribatuak egokitzeko malgutasunagatik. Hala ere, teknika hau oxidazio-erreduzioa baino garestiagoa da material aitzindari mota eta energia erabilerarenagatik. Gainera, CVD-an garatutako grafeno produktua transferitzeko zailtasunak eskalagarritasuna oztopatzen du. Prozesuko transferentzia urratsa zailtasun handikoa da, gaizki egin ezkerro egitura-akatsak eta ezpurutasunak sar litezkeelarik. Nahiz eta CVD grafenoak ezaugarri apartak izan zelula fotovoltaikoetan aplikatzeko, ez da hain egokia kantitate handietan ekoizteko.

Azkenik, LPE metodoaren kalitate oneko grafenoa eta prozesuaren eraginkortasuna dela eta merkaturatze potentzial handia du. Lehengai merkearen erabilpena eta ingurumena errespetatzen duten kimikoen erabilpena dira LPE-aren abantaila nagusiak. LPE grafenoak egitura-akats gutxiago dituen arren, operazio-kostu altuagoek eta beste hainbat zailtasunek prozesuaren eskalatzea oztopatzen dute.


Zelula fotovoltaikoetan grafenoak paper garrantzitsua jokatzen du besteak beste bizitza teknikoa luzatzean. Gaur egun hutsune-garaiatzaile geruzatzat erabiltzen den PSS materialak azidotasun handia izateagatik gailuaren degradazioa dakar. Beraz, grafenoarekin ordezkatuz degradazio arazoa konpontzen da eta zelula fotovoltaikoen ekoizpenaren ingurumen inpakta murrizten da. Bestalde, grafenoaren ekarpenari esker zelulen konbertsio eraginkortasuna hobetzen da, eguzki energiari etekin handiagoa ateraz.

Zelula fotovoltaikoetan aplikatutako grafenoa batez ere CVD eta oxidazio-erreduzio metodoaz erauzten da. DSSC zeluletan oxidazio-erreduzio metodoaz lortutako grafenoa erabiltzen da elektrodo zein elektrolitotzat, izan ere, funtzionamenduko erredox erreakzioarentzako grafenoaren oxidazio maila altuak onuragarriak dira. Beraz, metodo honetan erabiltzen diren substratu toxikoen ordezkapena bilatu beharko litzateke. Tour oxidazio metodoaz material toxikoen arazoa murriztea lortu den arren, nire ustez, oraindik ingurumen inpaktu txikiagoa duen metodo bat bilatu beharko litzateke.

Zelula organikoetan, aldiz, CVD grafenoa gehiago erabili da gardentasun eta eroankortasun altuagoak eskaintzen dituelako. Nire ustez, LPE grafenoak ere beharrezko baldintzak betetzen dituenez, prozesu-baldintza hobeak eta ingurumen inpaktu txikiagoa eskaintzen dituenez, CVD metodoa ordezkatu beharko luke.

Bestalde, panel fotovoltaikoen fabrikazioaren gorakadak bolumen handiko hondakin fotovoltaikoen eraketa suposatu du. Gaur egungo panel fotovoltaikoek 25-30 urte arteko bizitza erabilgarri estimatua duten arren kontuan hartzekoa da hondakin goiztiar kantitate

